

**JUSTA MONTERO:** «Zunda-baloien pare erabiltzen dute abortuaren gaia» **Europa**  
Krisia, lan eskubideak jipoitzeko aitzakia **HEZKIDETZA:** Derrigorrezko ikasgaia **Jaiak**  
«Festa dezagun geroa gaurdanik» **Beñat Gaztelumendi:** Tolosa **JABETZE ESKOLAK**  
Ohartu eta jabe egin **Berdinbidean:** Herri txikiei bidea marrazten laguntzeko

2014ko martxoaren 8a | VIII. urtea • 356. zbk.  
0,50 euro

**GAUR8** 

mila leiho zabalik  
[www.gaur8.info](http://www.gaur8.info)



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

# NOLAKO JENDARTEA JOSI NAHI DUGU?

## e.lkarrizketa: Justa Montero 04

**Krisiak bereziki kolpatu ditu emakumeen poltsiko eta eskubideak 07**

**Berdinetik berdinerako harremanetan bikainak diren neska-mutikoak hezten 12**

**Jaietan emakumeek duten rolaz gogoeta egiteko dokumentala 18**

**Jabetze Eskolak, ikusten uzten ez digutena ikusarazteko eta iraultzeko tresnez gaitzeko gune 22**

**Berdinbidean, herri txikiei bidea marrazten laguntzea xede 27**



22



4



18



27



12



## SINADURAK:

- 03 **Gorka Elejabarrieta:** Txanpon beraren bi aurpegi
- 10 **Eleno Alkain eta Saioa Aginako:** Identitateak
- 11 **Ramon Sola:** Nafarroa; hiru emakume eta beste 300.000
- 20 **Beñat Gaztelumendi:** Tolosa
- 21 **Koldo Almandoz:** Putzura
- 26 **Antton Izagirre:** Gizon horiek
- 29 **Naiara Garzia:** Emakumeen duintasuna
- 31 **Iratxe Esnaola:** Teknologien dimentsioa eta genero berdintasuna

{ datorrena } **Gorka Elejabarrieta**

# Txanpon beraren bi aurpegiak

**G**atazka politikoen konponbidean aditu diren ikertzaile eta ekintzaile gehienek publikaturiko ikerketen eta esperientzien arabera, konponbide prozesuetan emakumeek zuzenean parte hartzeak konponbidea bera erraztu eta arindu egiten du. Hala ere, oraindik ere emakumeen parte hartzea txikia izan ohi da, eta, gainera, maiz garrantzirik gabeko postuetan baino ez da gauzatzen. Era berean, adituen arabera, munduko gatazka politiko gehienek konpondu beharreko genero “arazoak” ere badituzte tartean. Aldiz, gutxitan izaten da generoa eztabaida eta negoziazioetako gaietako bat.

Gatazka askoren arrazoi nagusietako bat eskubide kolektibo eta indibidualen urraketan dago, herri edo talde jakin batakiko bazterte politikan, eta hor emakumeekiko bazterte ere errealtate bat da kasu guztietan. Gatazkek sortzen dituzten ondorio eta eskubide urraketek ere emakumeekiko jazarpen berezitua izan badute, bortxaketak, sexu jazarpena, tratu txarrak, eta abar. Ondorioz, edozein konponbidek edota gatazkaren inguruan eraikitzen den edozein errelatok genero ikuspegia kontuan izan behar du ezinbestean. Gatazka politiko eta armatu asko “gizonek” zuzenduriko nazio askapen mugimenduen eta gobernuen artean ematen dira, eta, ondorioz, konponbide prozesu horietan konponbidea ere gizonen esku geratu ohi da. Adituen arabera, kuota

politiketatik harago, emakumeen parte hartzea bultzatu eta indartu egin behar da, konponbidearen arrakastarako klabe-etako bat hori baita esperientziak irakatsi dienez. Adibide ez perfektu gisa Kurdistan aipatu nahi nuke, non emakumeen garrantzia eta presentzia oso handia den Nazio Askapen Mugimenduaren adar guztietan. Alderdi politikoan, erakunde armatuan eta baita gizarte zibileko talde eta mugimendu ezberdinetan ere. Sudan Askatzeko Herri Mugimenduko (Sudan People's Liberation Movement, SPLM) negoziazioetarako ordezkari Anne Ittok adierazi bezala, «emakumeak ez dira sekula gonbidatu soilak izan negoziazio mahaian. Borrokalari, borroka indarren babesle eta bakegile gisa jokatutako rolak eskubidea ematen die negoziazio mahian eseri eta adostutakoaren implementazioan rol aktibo bat izateko».

Duela gutxi Finlandiako Genero Parekotasunerako arartekoa den Pirko Makkinenek herrialdeko emakumeen egoeraz

emandako hitzaldi batean egoteko aukera izan nuen. Finlandiako egoeraz oso irakurketa kritikoa egin zuen, dauden gabezi nagusiak azpimarratu zituen, baita parekotasunerantz eman dituzten pausu garrantzitsuak azaldu ere. Nire ustez, Euskal Herriko gizartearekin konparatuz, haien egoera parekotasunetik askoz ere gertuago dago, perfektua izan gabe ere. Bere hitzetan, eta, politika instituzionalari dagokionean, Finlandia XX. mendearen hasieratik gaur arte emakume diputatu gehien duen herrien artean kokatua dago etengabe, urte gehienetan zerrenda horren buruan egon delarik. Bere ustez, datu hori aztertzerako orduan bada beste herriekiko kontuan hartzeko ezberdintasun garrantzitsu bat: Finlandian parlamentu nazionalerako hauteskundeetan ez dira sekula alderdi zerrendak bozkatu, pertsonak bozkatu eta aukeratzeko dira. Horrek esan nahi du ez direla inoiz kuota politikak eta legeak aplikatu diputatuak aukeratzeko orduan. Eta, hala ere, beste herri gehietan baino emakume

Adituen arabera, munduan dauden gatazka politiko gehienek konpondu beharreko genero «arazoak» ere badituzte tartean. Aldiz, gutxitan izaten da generoa eztabaida eta negoziazioetako gaietako bat

gehiago egon dira eta daude parlamentuan. Administrazioan, aldiz, kuota politika erabiltzen dute, bi norabideetan; sektore batzuetan gizonen parte hartzea bultzatuz eta besteetan emakumeena lehenetsiz, sektore bakoitzean dagoen genero inplantazioa kontuan harturik eta sektore guztietan parekotasuna bilatuz. Datozen urteetarako helburu nagusietako bat, administrazioan emaitza onak ematen ari den politika berdintsua enpresa pribatuetan ere ezartzea da.

Demokrazia maila eta parekotasuna txanpon beraren bi aurpegiak dira. Parekotasunetik gertuen dauden gizarteak Iparraldeko Europan daude, hau da, Suedian, Finlandian, Islandian, Norvegian, eta abar. Ez da kasualitatea: herrietan urteetan, belaunaldiz belaunaldi garatu den kultura eta praktika demokratikoan dago errealtate horren oinarria, eta, ondorioz, nire ustez, herri horietara maizago begiratu beharko genuke. •



Argazkiak: J. DANAE | ARGAZKI PRESS

**E**lkarrizketa amaitu eta barkamena eskatzen du, abortuaren gaia eta lege erreforma ahotan hartuta asaldatu egiten delako. Alberto Ruiz Gallardonek aurkeztutako proposamena zitala dela dio, sakonekoak diren eskubideak ezbaian jartzen dituela nabarmenduz. «Garaiotan gobernu bat emakumeen gainean hitz egiten ari den moduan hitz egitera atrebitea ez da onargarria».

**Atzera eta aurrera dabil Rajoi-  
ren Gobernuak abortuaren kon-  
tutuekin, zergatik horrenbeste  
buelta?**

Zunda-balioen pare erabiltzen ari dira abortuaren gaia beren hautesleentzako aurrean. Noizean behin gaia ateratzen dute, polemika eragiten dute, eta, ondoren, berriz ere alboratu egiten dute denboraz. PPre barruan sektorerik ultrena gustura utzi nahi dute, eta, ere berean, lege erreforma horren kontrakotasun handia eragiten ari denez, mezu hori kontrolatzeko beharra sentitzen dute. Azken batean, politikoki

«Lege honek fetua daramaten neurrian aitortzen dizkie soilik eskubideak emakumeei»

---

**JUSTA MONTERO**

---

MADRILGO ASANBLADA

---

FEMINISTAKO KIDEA

---

Aspaldian atera zen lehendabizikoz abortu eskubidea defendatzera kalera; berriz ere pankartaren atzean jartzeko inolako nagirik ez du, ordea.

---

maider.eizmendi@gaur8.info

erabiltzen ari dira gaia, bai beren baitako arazoak konpontzeko bai botorik ultrena erakartzeko ere.

**Europar mailan ere asaldatu egin dira Gobernu espainolaren erabakiarekin. Horrek, agian, geldiarazi egingo ditu?**

Nik uste dut kalkulu akats handia egin dutela. Eurek gai hau mahiaren gainean jarri dute sektorerik ultrena bereganatzeko, baina ez dute aintzat izan horrek iritzi publikoan eta PPre barruan izango zuen eragina. Europako erreakzioa ere ez zuten espero, eta, agian, hori da eurei gehien inportatzen zaiena. Kontuan hartu behar da Europa mailan eskuin muturreko mugimenduak izan badirela, eta, Espainian proposamen honen aurrera egiten badu, beste herrietan ere eragina izan dezakeela. Hortik dator akaso Europa mailan izan den erantzun handia.

**Atzera egingo al dute?**

Nik ez daukat batere argi. Uste dut ezetz, Justizia ministroak izugarritzeko harropuzkeriaz jokatzeko du-eta; hordagoa bota ostean ez du atzera egin nahi izango. Ruiz Gallardonek ikur bihurtu

du auzia, eta, ez badu aurrera egiten, Gobernuaren hankasartzea agerian geratuko da. Gainera, orain aipatzen da fetuaren malformazio kasua agian abortatzeko arrazoi gisa sartuko dutela lege berrian, eta PPK horrek egoera aldatuko duela espero da. Nire ustez, ordea, kasu hori baitan hartzeak ez du proposamena funtsean aldatzen, ez du eta abortatuko luketen emakume gehienentzat errealitatea aldatuko. Estrategia bera baliatu zuten elektrizitate tarifen kontuarekin; oso neurri muturrekoa ateratzen dute, eta gero murriztu egiten dute adostu egin dela eta moderatuagoa dela sinestartzeko. Azken baten, gaia atzera egiteko zaila den puntu batean kokatu dute, baina egia da borroka hau sozialki irabazi egin dugula. Harrapatuta daude eta oraintxe bertan ez dakit zer egingo duten. Horregatik, mobilizatzen jarraitzeko garaia da.

#### **Jaio gabeak eta haurdun dauden emakumeak defendatzeko neurri gisa aurkeztu dute auzia. Nola egin atzera?**

Bai, euren tranpa eraiki dute; izan ere, aurreproiektua defendatzeko oso ideologizatutako eta errealitateetik eta haurdunaldia eteten duten emakumeen beharretatik oso urrun dauden elementuak baliatu dituzte. Nik uste dut ez dakitela zer egin eta hauteskondeei begira auzia gelditu egin dutela. Fetuaren malformazioa kontuan hartzen badute ere, oso emakume gutxiren egoerari emango dio konponbidea horrek.

#### **Ama izan nahi duten emakumeak defendatu nahi dituztela esaten dute. Zer iritzi duzu mezu horren inguruan?**

Eskuin honen eta Gobernu honen hipokresiaren erakusle baino ez da. Gallardonek berak esana da emakumeek duten eskubide nagusia ama izatekoa dela. Horrek ideologia frankistarenarekin eta nazional katolizismoarekin egiten du bat. Ez du inondik ere errealitatearekin loturarik; emakumeok pentsatzen dugunarekin, garenarekin eta egin dezakegunarekin ez dator bat. Amen eskubi-

deak defendatzeaz hitz egiten dute eta gezur borobila botatzen dute. Murrizketetan oinarritutako politikak ari dira bultzatzen, eta, modu horretan, hala erabakita ama izan nahi duten emakumeei trabak baino ez dizkiete jartzen. Zerbitzu sozialak eta haur eskolak murriztu dituzte eta ez dituzte aitatasun baimenak luzatzen... Gainera, emakumeen bizimodua prekariagoa bihurtu duten lan erreformak jarri dituzte abian. Horrela ez da amatasuna defendatzen, kaltetu egiten da. Azken batean, ama izan nahi dutenei ez diete bizitza duina bermatzen, eta, izan nahi ez dutenei, ez diete horretarako eskubiderik aitortzen.

#### **Emakumeak erabakiak hartzeko subjektu giza ez dituzte aitortzen azken batean...**

Abortua delitu gisa eta ez eskubide gisa hartzen duten lege guztiek egiten dute hori; azken batean emakumeok erabakitzeko dugun ahalmen etiko hori ukatzen da. Izan ere, beste edonork bezala, bizitzan ditugun dilema desberdinen aurrean erabakiak hartzeko eskubidea dugu. Aurreproiektu honek muturrera eramaten du filosofia hori, fetua daramaten neurrian ezagutzen dizkiolako eskubideak emakumeari. Legearen beraren izena ere oso deigarria da. Aurreproiektuaren oinarrietako bat "sortuaren bizitza" bermatzea da eta horren baitan garatzen da araudi guztia. Emakumearentzat arriskutsua den haurdunaldia eteteko aukera kontuan hartzen da, baina kasu horretan ere emakumeak lehenik eta behin medikuarengana joan behar du, ondoren psikiatrarengana, eta, azkenik, gizarte langilearengana. Azken honek "sortuaren" eskubideen gaineko informazioa eta dituen alternatibaren ingurukoa eman behar dio emakumeari. Ez dio, berriz, emakumeek dituzten eskubideen, askatasun eskubidearen, bizitza duina izateko eskubidearen edota bere erabakitzeko eskubidearen gaineko informazioa emango. Jarraitu behar duen prozesu guztian zehar, "sortuaren eskubideen" kontra egin beharko du borroka emakumeak.

#### **Profesionalen kontzientzia eragozpenak ere bestelako pisua hartzen du aurreproiektu egitasmoan.**

Prozesu guztian parte hartzen duten profesionalen kontzientzia eragozpena instituzionalizatu egiten da. Eskatzen zaien gauza bakarra publikoki aitortzea da. Modu horretan, bidea zabalik uzten da kontzientzia eragozpena modu orokorrean baliatzeko. Kontua da profesionalak ere asalatu egin direla. Psikiatra elkarte batek, esaterako, bere gaitzespena azaldu du. Emakumeek jarraitu behar duten prozesua, izan ere, beldurtzeko modukoa da. Azken batean, psikiatren esku jartzen dira psikiatrek hartu beharko ez lituzketen erabakiak. Gainera, kasu horri helduta aborta dezaketen emakume kopurua oso murrizta da. Jende guztiaren arreta honek hartzen du, baina kalkulatu da ez dela abortatu nahiko duten emakumeen %15era ere iritsiko. Helburua emakumeak atzera egitea da. Niri orain emakume bat etortzen bazait egoera horretan dagoela esanez, ez litzaidake burutik pasa ere egingo bide legala har dezan gomendatzea. Nire arerio handienari ere ez nioke gomendatuko; zitalkeria hutsa da.

#### **Horregatik, hain zuzen, aurreproiektu hau osasun kontu bat ere bada?**

Egia da bere horretan ez dela aplikatzeko modukoa. Nik uste dut ez dagoela herririk urtero 80.000 pertsona kanpora abortatzera joatea jasaterik duenik. Hori eskandalua da maila sozialean; kopuru oso altua da.

Era guztietako ikerketak daude, baita Osasunaren Mundu Erakundearenak berarenak ere, argi uzten dutenak: legedia zorrotzak dituzten herrietan abortuak emakumeentzat arrisku gehiagorekin egiten dira, ez delako osasun prestazio gisa erregulatzen. Sare normalizaturik ez dagoenez, sare paraleloetara joan behar du emakumeak. Horrek emakumearen osasun eta segurtasunerako arriskua du.

#### **Ez da, gainera, guztien esku egongo irtenbide seguru bat baliatzea.**

*«Azken batean, ama izan nahi dutenei ez diete bizitza duina bermatzen, eta, izan nahi ez dutenei, ez diete horretarako eskubiderik aitortzen»*

*«Nik uste dut ez dagoela herririk urtero 80.000 pertsona kanpora abortatzera joatea jasaterik duenik. Hori eskandalua da maila sozialean, kopuru oso altua da»*

Ekonomikoki aukera eta mugitzeko gaitasuna izan beharko du abortatu nahi duenak. Nik gogoran dut jendeak kanpora joan behar zuen garaian egunak behar izaten zituela. Abortua auzi ekonomiko bilakatuko da aurreproiektu hau aurrera ateratzen bada; ez da berdintasunik izango, izan ere, emakumeek aukera desberdinak izango dituzte euren egoera ekonomikoaren arabera. Batzuek pagatu ahaliko dute, baina ezin dutenak zer egin behar dute? Seguruenik bide paraleloak bilatuko dituzte hemen bertan, eta horrek arrisku handia dakar.

#### **Proiektuari alde onik bilatzerik baldin badago, agian, kalean eragin duen mobilizazioa aipa genezake. Emakumeen eskubideen kontzientzia hartzen lagunduko du?**

Niri oso interesgarria iruditzen zait aurreproiektu hau eragiten ari dena, besteak beste, emakume gazteen erreakzioa eragin duelako. Horrek argi erakusten du arau honek zein gutxi konektatzen duen emakume gazteek bizi duten errealitatearekin. Emakumeek auzia erabakitzeko eskubidearekin lotu dute erabat eta honakoa pentsatu dute berehala: «Nolatan esan behar dit inork zer egin behar duen nire bizitzarekin, nire gorputzarekin eta nire amatasunarekin?». Nola bait, gorputzarekin lotutako eskubideak ditugula kontzientzia hartzen ari direlako eragin du halako erantzuna aurreproiektuak emakume gazteen artean. Hori oso elementu indartsua da eta presente dago protestetan.

#### **Egitasmoak oinarrian duen mezua kaltegarriena da eskuak gurutzatuta geratzeko, ezta?**

Nik uste dut asaldatze eta errebolta sortu duela. Azken batean, «nik Gobernutik zuen bizitzan zer izan behar duzuen, nola jardun behar duzuen eta zer erabaki dezakezuen eta zer ez esango dizuet» dio mezu horrek. Horrek errebolta eragin du eta ez du soilik abortu eskubidearekin konektatzen, baita gure bizitzaren inguruan erabakitzeko eskubidearekin ere. Garaiotan, izan ere, gobernu bat



*«Garaiotan gobernu bat emakumeen gainean hitz egiten ari den moduan hitz egitera atrebitzea ez da onargarria»*

*«PPkoek aborturako eskubidea ukatzen dute, baina baita beste guztia ere. Prebentziorako ez dute inolako neurririk aurreikusten»*

emakumeen gainean hitz egiten ari den moduan hitz egitera atrebitzea ez da onargarria.

**Antza legea aholku taldeen esku dago orain. Egin duten bidean, baina, ez da emakumeen hitza kontuan izan.**

Guri iritsi zitzaigun aurreproiektua, baina pausu formal bat baino ez zen izan. Bidali egin ziguten, guk gure iritzia emateko, baina ez genuen erantzunik jaso

ondoren. Formak mantentzeko baliatzen dute prozesu hau, baina uste dut ez dagoela gizarte zibila entzuteko borondaterik.

**Askorentzat eredu da egungo legea, baina 2010ean feminista askok aukera galdu zela uste izan zenuten.**

Gu geu tartean. 2010ean oso kritikoak izan ginen orain indarrean dagoen legearekin, emakumeak topatzen dituen zailtasun guztiak

kentzeko aukera galdu zela uste baikenuen. Gure ustez, kontzientzia eragozpena argi erregulatu ez izana, abortuak osasun publikoan egingo direla bermatu ez izana, eta, batez ere, abortua Zigor Kodean delitu gisa mantendu izana akatsa izan zen. PSOEek lege irekiago bat egin behar zuela uste genuen. Une honetan ere guk ez dugu 2010eko legera besterik gabe itzultzea eskatzen. Erreforma gaitzesten dugu, baina horrez

gain abortua Zigor Kodetik ateratzea eta osasun sare publikoan prestazio normalizatu gisa eskaintzea aldarrikatzen dugu. Hori egiten ez den artean aldiro arazok sortuko dira. Klase politiko guztiari hartu beharko genioke kargu horrenbeste urte arazoari benetako konponbiderik eman gabe igarotzeagatik. Honek kostu handia du abortatu behar duten emakumeentzat.

**Egiten duzuen beste aldarrikapena heziketa sexualarena da. Ez da behar beste lantzen?**

PPkoek aborturako eskubidea ukatzen dute, baina baita beste guztia ere. Prebentziorako ez dute inolako neurririk aurreikusten. Irailean osasun publikoak ematen dituen prestazioetatik azken belaunaldiko antisorgailuak kendu zituzten. Sexu heziketa PSOEren gobernuen garaian ere ia ez zen existitzen, baina Wert legearekin are gehiago murriztu da arlo hori eta eskoletan sexu heziketa emateko edozein aukera itxi da. Zentroren batean egingo da, bertako zuzendaritza taldearen edota gurasoen arabera, baino orokorrean hezkuntza sistemak ez du ezer bermatzen. Abortuaren, heziketa sexualaren, prebentzioaren, zerbitzu sozialen... kontra daude. Sekulako inboluzioa da.

**Pentsatzen dut zuen belaunaldiko emakumeei nekeza egingo zaizuela gai berarekin behin eta berriz kalera irten behar izatea, ezta?**

Alde batetik harrigarria da. Seguru nago inork ez genuela pentsatuko horrenbeste urte eta gero berriz ere kalera atera beharko genukeenik horrelako proiektu bati aurre egiteko. Proiektu honek ez du soilik eskubide bat murrizten; guztiz zitala da eta sakontasun handiko eskubideak ukatzen ditu. Hori da ni neu gehien larritzen eta haserrarazten nauena. Beste alde batetik, oso zailak ziren garaietan irten behar izan genuen kalera, ez gintuzten makurtu eta zenbait gauza lortu genituen. Orain ere adin guztietako emakumeak gaude gure eskubideak elkarrekin defendatzeko prest; irno jokatu dugu.

# KRISIALDIA

## Emakumeen poltsikoak eta lan merkatuan duten lekua gogor jipoitu ditu krisiak

📁 EKONOMIA / maider.eizmendi@gaur8.info

Gogorrago edo arinago, gutxi dira krisiaren eraginak nabaritu ez dituzten herritarrak Europan. Oro har, ordea, emakumeak dira egoera ekonomiko makalaren ondorioak gordinen jasan dituztenak. Poltsikoak zulatu dizkie krisiak; urteetako borrokaren ondoren eskubideen alorrean egindako pausuak ere ezbaian dituzte gainera uneotan.

**K**risiak gogor kolpatu ditu bazterrak Europan, baina inori jipoia eman baldin badio, kontinentean bizi diren emakumei izan da. Gero eta gehiago dira, izan ere, bazterketa sozial eta pobrezia egoeran bizi

diren emakumeak. Talde horretan sartzen direnen portzenta-jeak Europan bizi diren emakumeen egoera ekonomikoaren argazki larria erakusten du, lau emakumeetatik bat aipatu egoeran baitago uneotan.

Poltsikoetan izan duen eraginetik harago doa, ordea, krisiaren eragina; hainbat adituren

ustea da emakumeek lan munduan duten lekuaren inguruko aurreiritziak eta gizarte imajinarioa bera ere gogor kolpatu dituela.

Krisiaren lehen eraginak gizonen enpleguan nabarmendu ziren gehienbat, nabarmen maskulinizatuta zeuden alorrek kolpatu baitzituen lehenik eta behin, eraikuntza sektorea, besteak beste. Krisiaren atzaparrak, ordea, emakumeengana zuzendu ziren pixkanaka-pixkanaka. Sektore publikoan egin diren murrizketek, adibidez, emakumeak kaltetu dituzte batez ere, hezkuntza, osasuna edota zerbitzu sozialak bezalako sektore feminizatuetara iritsi baitira batik bat.

Europar Batasunak berak helburu jarritako zifretara iristea, beraz, ezinezkoa gertatuko da. Izan ere, 2020rako emakumeen laneratzea %75ekoa iza-

tea zen xedea, baina oraindik orain portzentaje horretatik oso urrun dago errealitatea. Egun, batezbestekoa %62,3koa da -2013 amaierako datuak dira-. Europako estatuen buruan uneotan Suedia (%76,8) dago, eta, zerrendaren atzealdean, Estatu espainola (%54), Italia (%50,5), Kroazia (%50,2) eta Grezia (%45,2).

### SOLDATA DESBERDINTASUNAK

Lan merkatuan emakume eta gizonen artean parte hartzea desberdina bada, bertan aritzea gatik ordainetan jasotzen duten soldatan ere alde nabarmenak daude. Europako Batzordeak kaleratu dituen azken datuen arabera, emakumeek, batez beste, gizonen baino %16,4 gutxiago kobratzen dute. Hala ohartarazi zuten otsailaren azken egunean ospatu zen Soldata Berdintasunerako Europako Egunean. «Az-



ken urteotan soldata-arraila apur bat baino ez da murriztu. Hori gutxi balitz, joera hori batez ere krisiagatik gertatu da, honek gizonen soldatak jaitsarazi dituelako. Emakumeen soldatak ez dira igo», azaldu zuen Viviane Reding Europako Justizia komisarioak. «Lan berdina egiteagatik soldata berdina jasotzea Europar Batasuneko oinarriko printzipioetako bat da, baina, zorritzarekin, oraindik ez da errealitate bat Europan».

Datuak argigarriak dira zentzu horretan: «Europar emakumeek urtero 59 egun lan egiten dituzte 'dohainik'». Zenbait estatutan, gehiago. Izan ere, soldata-arraila handitu egin da azken urteotan Hungarian, Portugalen, Estonian, Bulgarian edota Estatu espainolean.

Arrazoi ugari daude soldata desberdintasun horiek azaltzeko, baina, guztien artean, Batzordeak berak oraindik orain lan merkatuan dagoen diskriminazioa nabarmendu du; zuzena, lan bera egiteagatik emakumeek gutxiago kobratzea dakarrena, eta, zeharkakoa, emakume eta gizonengan eragin desberdina duten jarduera edota politikak aplikatuzetik eratorritakoa. Badira, ordea, egoera horretan zeresana duten beste arrazoi batzuk ere, esate baterako, emakumeei lotzen zaizkien trebetasun eta gaitasunei ematen zaien balore murriztagoa, batez ere, feminizatuak dauden sektore eta alorretan.

#### ESTATUEN ARTEKO ALDEAK

Europar Batzordearen arabera, soldatetan dagoen aldea murriztea ezinbestekoa da hainbat arrazoiengatik: «Argi dago soldata berdintasuna lagungarri dela justuagoak eta berdinzaleagoak diren gizarteak sortzeko, oinarriko europar ekonomiak sustatzeko, eta onuragarria lan merkatu eta langileentzako, besteak beste, emakumeen talentua erakartzen lagunduko duelako». Bide horretan pausak emateko estatuek hartzen dituzten neurriak, ordea, oso desberdinak dira. Finlandian soldata berdintasuna lortzeko plan zehatzak dituzte; beste estatu ba-

Lanaldi murriztuak izateak emakumeen ibilbide profesionalen eragina dute.  
THINKSTOCK



tzuetan, Estatu espainola edo Estonia kasu, Soldata Berdintasunerako Egunak antolatzen dira neurriok.

Lan merkatutik erretiroa hartu ostean ere emakume eta gizonen egoera oso ezberdina da Europar Batasunean. Batez beste, emakumezko pentsiodunek gizonenak baino %39 gutxiago kobratzen dute. Emakumeek

askoz ere aukera gehiago dituzte, beraz, zahartzaroan txirotasun egoeran bizitzeko, pentsio txikiagoa ez ezik, bizitza esperantza altuagoa ere badutelako. Datuek diote 75 urtez gorako emakumeen %22 txirotasun atalasearen azpitik bizi direla Europar Batasunean eta askoren bizitza kalitatea oso apala dela.

Pentsio baxuagoak jasotzeko arrazoien artean emakumeek lan merkatuan emandako denbora dago, besteak beste. Emakumeak lan merkatuan barnerratu badira ere, datuek diote oraindik orain gizonen baino ordu gutxiago egiten dituztela lan, eta, horrek, noski, eragina du bai beren ibilbide profesionalen, bai soldatan bai etorkizunean izango dituzten pentsioetan. Estatutik estatura, baina, alde handia dago, Europako Batzordeak iazko datuak kontuan hartuta

egin duen txostenak jaso duen moduan. Zenbait estatutan, lan egiten duten emakumeen portzentajea altuagoa da, adibidez Alemanian, Herbeheretan, Austrian edo Britainia Handian –lanaldi murriztagoak izan ohi dituzte–. Beste estatu batzuetan, berriz, Estatu espainolean edota Irlandan kasu, emakumeek lan merkatuan duten parte hartzea murriztagoa da; aldiz, lanaldi murriztuak ez dira hain portzentaje altuan ematen.

#### HAINBAT USTE INDARTU

Batzordearen arabera, oinarrikoa da bi norabidetan lan egitea egoera errotik aldatzeko: batetik, emakumeek lan munduan duten parte hartzea handitu behar da, eta, bestetik, emakumeek eta gizonenak pareko lanaldiak izan ditzaten lortu behar da. Zentzu horretan oinarritzat jo du lan

**Europar Batasunean 2020. urterako emakumeen laneratzea %75ekoa izatea zen xedea, baina oraindik orain portzentaje horretatik urrun dago errealitatea; egun, %62,3koa da batezbestekoa**

**Krisiak emakumeak are eta gogorrago kolpatu dituen arren, emakumeen eskubideak defendatzeko osatutako erakunde ugari bertan behera utzi dituzte krisialdia baliatuta**





**Batez beste, emakumezko pentsiodunek gizonzkoek baino %39 gutxiago kobratzen dute. Ondorioz, zahartzaroan txirotasun egoeran bizitzeko arrisku handiagoa dute**

**Europako Batzordeak berak ohartarazi duenez, orokorrean, gizonzkoen langabezia emakumezkoena baino larriagoa dela pentsatzeko joera dago gizartean**

na da, era berean, zaintza alo-  
rean duten pisuagatik emaku-  
meak direla gizarte zerbitzuen  
onuradun nagusiak, eta, ondo-  
rioz, zerbitzuok murrizteak be-  
reziki kaltetu dituela.

Emakumeek lan merkatuan  
duten eta izan beharko luketen  
lekuaren inguruko usteak ere  
esanguratsuak dira oso. Euro-  
pako Batzordeak berak oharta-  
razi duenez, orokorrean, gizo-  
nen langabezia emakumeena  
baino larriagoa dela pentsatzen  
da gizartean. Izan ere, emaku-  
mearen kasuan, eremu publi-  
koa baino pribatua lehenesten  
da kasu askotan.

Krisia hasi aurretik ere izan  
baziren estereotipo hainbat in-  
dardu egin dira eskasia garaian,  
besteak beste, emakumeen es-  
kubideen defentsan egiten zen  
lanak eta haiek lan merkatuan  
duten lekua handitzeko ezarri-  
tako kuota beste eskubide ba-  
tzuekin talka egiten dutela uste  
dutelako askok. Emandako aur-  
rerrapauso asko, beraz, atzera-  
bidean daudela ohartarazi dute  
feministek. Krisiak emakume-  
en poltsikoetan egin du, izan  
ere, zulorik handiena.

**%25**

**dira bazterketa sozial  
edota pobrezia  
egoeran bizi diren  
emakumeak European**

**59**

**egun egiten dituzte  
lan dohainik  
emakumeek, gizonen  
jasotzen duten  
soldata kontuan  
hartzen bada**

**75**

**urteik gorako  
emakumeen %22  
txirotasun atalasearen  
azpitik bizi direla  
nabarmendu dute  
datuek**

malgutasuna gizon zein emaku-  
meei zabaltzea, etxeko eta zain-  
tza lanen partekatzea areagotze-  
ko pizgarriak ematea, eta zaintza  
lana lan ordainduarekin batera-  
garri egiteko zaintza estruktura  
egoki bat abian jartzea. Aldiz, kri-  
siak azken alor hori are eta gehia-  
go estutu du oraindik ere.

Poltsikoan gogor, baina pen-  
tsamenduan ere izan du zeresana  
krisiak, baita erakundeen le-  
hentasan zerrendan ere. Jakina  
da hainbat estatutan berdinta-  
suna sustatzeko osatu ziren  
erakundeak bertan behera ge-  
ratu direla krisiak aurrekon-  
tuak estutu dituenean. Ezagu-





**Eleno Alkain eta Saioa Aginako**  
Psikoterapeutak

## Identitateak

**E**uskal Herriko lehendabiziko jardunaldi feministak 1978. urtean ospatu ziren Leioan, Bizkaiko Asanbladak antolatuta. Jardunaldiek izugarriko bultzada suposatu zuten Euskal Herriko mugimendu feministarentzat, gai berriak landuz. Bertaratu zirenen artean, gainera, talde feminista berriak eraikitzen hasi ziren.

Denboraren poderioz teoria feministek aurrera egin dute, ikerketa, borroka eta hausnarketa ugari aurrera eraman dira eta kontzeptu berriak ere garatu eta egokitu dira. Hala eta guztiz ere, oraindik, zenbaitetan, “feminismo” hitza oztopo bezala ikusia izatea gertatzen da. Bestelako hitzak aldeztu dira, zuzenean “feminismo” hitza saihesten den bitartean. Zergatik gertatzen da hori gaur egun? “Feminista” hitzak karga negatiboa al du berarekin? Edota bizi garen patriarkatuak bultzatutako estrategietako bat da?

Feminismoaren alde eta zenbait zailtza aldendu nahian, gaiaren inguruko hiru kontzeptu jarriko ditugu mahai gainean, ezezagunak bazaizkigu; ezagunagoak izatea da gure helburua, eta, bide batez, Emakumearen Nazioarteko Eguna bezalako egunetan horma, kartel, egunkari eta pankartetan irakurritakoak gertukoak egitea eta ez arrotzak.

**Gurera ekarriko dugun lehenbiziko kontzeptua «feminismoa» da.** Bere helburu nagusienetakoa emakume eta gizonen arteko eskubideen berdintasuna bermatzea da, baita gizonak emakumearekiko dituen menderatze eta indarkeria jarrerak salatu eta errefusatzea ere, generoaren araberako rolen esleitzea zalantzan jartzearekin batera. Mugimendu feministaren eraginari esker, eta betiere zenbait lurraldetan, emakumezkoen boto eskubidea, berdintasuna legearen aurrean edota sexu eta ugalketa eskubideak lortu dira.

Hurrengo kontzeptua eta gaur egun puri-puritan dagoena “transfeminismo” bezala ezagutzen duguna da. Simone Beauvoirrek esan zuen bezala, «ez gara emakume jaiotzen, emakume izatera iristen gara», eta, hala, transfeminismo-

tik hurrengo galdera luzatzen da: zer gertatzen da emakume izateari uko egiten diogunean? Teoria transfeministek generoaren kontzeptua zalantzan jartzen dute, eraikuntza soziala dela argudiatuz, zapalkuntza tresna eta inposizio sozial lez erabiltzen dena. Ikuspuntu horretatik, generoaren kontzeptuak gorputzak ekotzi, kontrolatu eta mugatzen ditu, ezarritako ordena sozialera egoki daitezten. Transfeminismoak, beraz, arau sozial hauek zuzentzen dituzten kodeak aldatu, handitu eta transformatzea du helburu. Feminismoa mugimenduan eta bizirik dagoen praktika eta teorioren multzo bezala kokatzen du.

**Bukatzeko, feminismoaren ikerkuntzaren garapenaren ondorioz sortutako «Queer teoria» dugu.** Pertsonen generoa eta identitate sexuala eraikuntza sozialaren ondorio dira, eta, beraz, ez daude biologikoki gizatasunean idatzita. Teoria honek gizabanakoen sailkapena kategoria unibertsal eta mugiezinetan egitea arbuatzen du; “emakume-gizon”,

“heterosexual-homosexual”, “transsexual” edo “trabesti”. Definizio horiek heterosexualitatea «nahitaezkoa» den kultura batek inposatutako murrizketara lotuta daudela kontsideratzen du. Psikologia, antropologia, soziologia eta filosofiaren usadiozko sailkapen sozialak kritikatu ditu, normalean segmentazio patrio bakarrean oinarrituta daudela-eta (maila soziala, sexua, etnia, nazionalitatea...). Horrenbestez, identitatea era konplexuago batean eratzten dela defendatzen du.

Beraz, “emakume” izatea zer den izan al dezakegu hizpide? Inolaz ere. Emakumeak asko gara munduan, eta, emakume bakoitza, bakarra munduan. Beraz, emakume izateko modu ezberdinak egongo dira, munduan gauden emakume bezainbeste. Bakoitzaren identitatea osatzen duten ezaugarri batzuk komunean izango ditugu, eta, hala ere, ezaugarriok, beraien berdintasunean ezberdinak izango dira, bakoitzaren subjektibitatearengatik zeharkatuta egongo direlako. •



2008an burututako IV. Euskal Herriko Jardunaldi Feministak.

Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

# Nafarroa; hiru emakume eta beste 300.000

**A**itorpen bat aurretik: hotz gelditu naiz GAUR8ko editoreak, Martxoaren 8a gaur dela-eta, Nafarroako egoera politikoa emakumeen ikuspuntutik aztertzeke proposamena mahai gainean jarri didanean. Ez dirudi ariketa zaila denik, azken «krisialdi» honetan zenbait emakumezko hartu duten protagonismoa begi bistakoa delako eta hainbat hedabidetan hori nabarmendu dutelako. Baina ez naiz, behar ez denean, mundua emakume eta gizonen artean banatzeko batere zale, eta, zuzen ala oker, artifiziozko kategorizazioa iruditzen zait gehienetan.

Gogo gutxirekin bada ere, jorra dezagun baina bide hori gero beste saihezbide bat hartzeko helmugara heldu aurretik. Aipatutako hedabideek hiru izen nabarmendu dituzte, hilabete honetan guztion ahotan ibili baitira: Yolanda Barcina, Lourdes Goicoechea eta Idoia Nieves. Banan-banan aztertzen hasita, ezin uka Barcinak politikagintzan eragiteko duen gaitasuna eta darabilen lidergoa: filia eta fobia asko, biak batzen ditu. Michelle Alliot-Marieren ondoren, azken hamarkadatan Euskal Herrian botere politikoa gehien bildu duen emakumetzat harnezake (egun Nafarroako eta UPNko presidentea da).

Hauteskundez hauteskunde bozka asko pilatu ditu: hainbaten ustez, neurri batean emakume izateak emakumezkoengan zein gizezkoengan eragiten duen sentimendu positiboari esker. Ni neu behintzat ez naiz putzu horretan sartuko, auskalo. Dakiguna da botere hori zentzu maskulinoenean erabili duela: bere alde, poltsikoa betetzen, eta gizartearen gehiengoaren aurka, eskuineko politika gogorrenak ezarriz. Gure Thatcher partikularra da Barcina, ez irudiz baina bai politika egiteko eran. Eta berau pixka bat ezagututa, esango nuke konparaketa ez duela iraintzat hartzen, laudoriotzat baizik.

Askoz apalagoa da Goicoechearen itzal politikoa. Ustelkeria auzi bati abizena emateagatik baino ez dugu gogoratuko urte batzuen bueltan. Baina ez dirudi bere jokabide politikoa eta etikoa aurreko presidenteordearena (Alvaro Miranda, hau ere diruzale galanta baina gizona) baino larriagoa izan denik. Arreta handiagot

begiratu zaio Idoia Nieves Ogasuneko buru izandakoa-ri, baina honek ere ez du azkenik gehiegizko eraginik izan. Boteregune politikoen erraietan gizezkoen artean hainbestetan agertzen zaizkigun barne borroka gogorren ondorio baino ez da Nieves, dakigunaren arabera, eta nire ustez oso luze gelditzen zaizkio Iruñeko manifestazioan sasi-brometan zuzendu zizkieten leloak: «Ari, ari, ari, Nieves lehendakari».

## **BOTEREGUNEETAN HEROINA BAT**

Historia honetan botereguneetan benetako heroina bat bilatu nahi izatekotan, beste emakume bat dator kit burura: Mari Paz Benito epailea, Nafarroako Kutzan izandako ustelkeria zuzenki salatu zuena, auzia Madrilen bahitu aurretik.

Ez dut ikusten, bada, berezitasun nabarmenik protagonista izan diren emakume horiengan. Kontrakoa

Barcina, Goicoechea eta Nievesen izenak nabarmendu badira ere, kontrakoa esango nuke: emakumeak ez dira lehen mailako protagonista Nafarroan, lehen mailako biktima baizik. Eta 300.000 dira, ez hiru

esango nuke: emakumeak ez dira lehen mailako protagonista Nafarroan, lehen mailako biktima baizik. Izan ere, *thatcherismoan* gertatu bezala, *barcinatoan* ere gizezko ahulenen egoera okerragotzen ari da egunero-egunero, eta horrek zuzenago eragiten die emakumeei gizezkoen baino. Osasunbidea gero eta okerrago dago. Hezkuntza arloa ere diruz hustu dute, tartean seme-alabak Argatik behera euskaraz eskolatu nahi dituztenen buruhaustea are gehiago handituz. Menpekotasunari emandako laguntzak murrizten eta murrizten ari dira, hori ere ama askoren kalterako bereziki. Langabeziak gaindiezina zirudien 50.000 nafarren muga aspaldi pasa du. Abortatzeko eskubideari ate guztiak ixten dizkio UPNk oraindik ere. Zerrenda amaigabea litzateke. Emakumeena Nafarroan ez da hiru kontua, 300.000 baino gehiagorena baizik. •

Emakunderen Nahiko programak 2.000 neska-mutikotik gora hartuko ditu baitan 2013 eta 2015 artean. Jolasaren bidez, hezkidetzaren helburu daukan proposamen pedagogikoa da. Jagoba MANTEROLA | ARGAZKI PRESS



## HEZKIDETZA ESKOLAN

Berdinetik berdinerako harremanetan bikainak diren neska-mutikoak hezten

HEZKUNTZA / amagoia.mujika@gaur8.info

Neskatoak ausartak dira eta mutikoek negar egiten dute. Neskatoak heroiak dira eta mutikoak nork salbatuko zain daude. Hezkuntzak pertsonaren zimendu batzuk jartzen ditu, pentsa noraino den garrantzitsua. Emakunderen Nahiko programak eta Lakuaren Hezkidetzaren planak hezkidetzaren zimendu sendoak eraiki nahi dituzte.

**N**ahiko izeneko hezkidetzaren programa 2003an jarri zuen martxan Emakunderen. Ordurako arituak ziren hezkidetzaren lantzen Bigarren Hezkuntzan eta ondorio garrantzitsu batera iritsiak ziren: berandu samar zen. Ordurako, 12-13 urte betetzerako, neska-mutikoek barneratuak zituzten rolak, jarrerak eta ikuskerak

ez ziren sarri parekidetasunaren gainean eraikitakoak. Horregatik jo zuten garrantzitsu lehena go hastea, Lehen Hezkuntzan, eta norabide horretan abiatu zen Nahiko programa.

Raquel Raposo Emakundeko Programa eta Prestakuntza arloko arduraduna da. «6-7 urteko haurrekin hasi ginen, oso adin garrantzitsua delako. Mundua deskubritzen ari dira, baita beren kabuz zenbat gauza egiteko

gaitasuna daukaten ere. Hausnartzen eta pentsatzen hasteko adina da, eta horregatik da hain garrantzitsua mugarik ez jartzeari. Pertsona guztiok izan ditzakegu mugak, berezkoak, gure izaerari edo gorputzari lotuak, baina haurrei ezin zaizkie bestelako mugak jarri, estereotipo edota generoaren gaineko sinemenei lotutakoak. Horrek bere hazkuntza prozesua eta bere aukerak mugatu besterik ez ditu

egiten», hasi da kontatzen Raquel Raposo.

Nahiko programa Lehen Hezkuntzara bideratuta dago; lehen zikloa (1. eta 2. maila), bigarren zikloa (3. eta 4. maila) eta hirugarren zikloa (4. eta 5. maila) hartzen ditu baitan. Zikloko seina unitate didaktiko eskaintzen ditu, hamazortzi unitate guztira, eta helburu nagusi bat dauka: barneratutako ikuskera eta balio asko desikastea eta parekidetasunean, desberdinarekiko errespetuan eta berdinetik berdinerako harremanetan bikainak diren neska-mutikoak hezteak.

«Parekidetasunean hezteak ezinbestekoa da. Neska-mutikoek berdintasuna sustatzea indarkeria matxista prebenitzeko modua da, finean indarkeria hori desparekotasunaren muturreko adierazpena baita. Neska-mutikoek autonomoak eta askeak izatearen garrantzia barneratu dezatela, beren zaintzaz eta inguruko arduratzeko gaitasuna gara dezatela eta norberak egiten duenaren ardura duela ikas dezatela da Nahiko programaren helburua. Horretarako ikaskideekin, gurasoekin, irakasleekin dituzten harremanekin buruz hitz egiten da; beren

**Ikasleak ez ezik, irakasleak eta familiak ere hartzen ditu baitan Nahiko programak. «Denok hezi gaituzte joera sexistak dituen sistema batean, denok daukagu zer desikasi»**

sentimenduak identifikatzen laguntzen zaie; maskulinitate eredu berriak lantzen dira; gatazkak modu baketsuan konpontzeko tresnak eskaintzen zaizkie... Gauza asko lantzen dira, guztiak jolasen bitartez».

Nahiko programaren unitate didaktiko bakoitzak hiru norabide ditu. Batetik, irakasleari azaltzen dio zein den unitate horren edukia, zein helburua eta nola erabil dezakeen eskura duen materiala. Bestetik, ikasleei begirako ipuinak, jolasak, ariketak eta beren hausnarketak biltzeko koadernoak daude. Eta, azkenik, familiaren koadernoak dago, ikasleek etxera eramaten dutena eta ikasgelan lantzen ari diren gaiari buruz hitz egiteko aitzakia eskaintzen diena (materiala nahi duenaren eskura dago [www.emakunde.euskadi.net/u72-nahiko10/eu/helbidean](http://www.emakunde.euskadi.net/u72-nahiko10/eu/helbidean)).

**NORBERAREN JOKAERAK AZTERTU**

Ikasleak ez ezik, irakasleak eta familiak ere hartzen ditu bere baitan Nahiko programak. «Denok hezi gaituzte joera sexistak dituen sistema batean. Finean, denok gara horren ondorio eta garena erreproduzitzen dugu. Horregatik beharrezkoa da irakasleak hezte, hausnarketara bultzatzea, barrura begira jartzea norberak dituen joerak identifikatzeko. Askotan, gainera, irakasle edo gurasoek ez dute jakiten gauzak hobeto nola egin; horretarako tresnak eta baliabideak eskaintzen ditu Nahikok, irakasleei begirako formakuntza eskainiz. Hartara, irakasleei haurrekin eta familiarekin hezkidetzat lantzeko bideak eskaintzen zaizkie», agertu du Raposok.

«Irakasleek eta familiekin ez dute berdin jokatzeko neskatoekin eta mutikoekin». Baieztape zuzena da, irakasle eta familia askok zalantzan jarriko dutena segur aski. Izan ere, askotan intentziorik gabe ematen da jokabide desberdina. «Gurekin programan parte hartu duten irakasle asko konturatu dira beren jokaera desberdina dela neskatoekin eta mutikoekin. Esaterako, normalean mutikoek ikasgelako dinamika maizago

**«Lehen Hezkuntzako haurrak mundua deskubritzen ari dira. Hausnartzen eta pentsatzen hasteko adina da, eta horregatik da hain garrantzitsua mugarik gabe hezte»**

eteten dute, beren galdera eta aipamenekin. Eta, azkeneko, irakasleak arreta gehiago eskaintzen dio etengabe gelako martxa eteten ari den mutikoari azalpena lasai eta patxadaz jarraitzen ari den neskatoari baino». Emakundeko arduradunaren ustez, «oinarrizkoa eta ezinbestekoa» da bai irakasleek eta bai gurasoek horrelako egoerak identifikatzea eta zabalitzen duten ereduak zein den hausnartzea.

Portaera desberdintasun hori agerian uzten duten adibideak asko dira. «Esaterako, Bigarren Hezkuntzan lanean hasi gine-

nean berehala konturatu ginen mutiletatik eta nesketatik espero diren gauzak oso desberdinak direla. Neskei ordena, garbitasuna, txukuntasuna eskatzen zaizkie, eta horiek espero dira haien aldetik. Mutilen aldetik, ez hainbeste. Hartara, askoz lehenago gaitzetsiko da zabarra den neska baten jarrera mutil batena baino. Mutila berez zabarra eta despistatua den uste orokorra dago. Eta uste horiek indar handia dute egunerokoan. Horien kontzientzia hartzea oso garrantzitsua da, eta hori lantzen da bereziki irakasleekin», agertu du Raquel Raposok.

**JOLASAK, HAUSNARKETARAKO BIDE**

Nahiko programaren materialek «eguneroko gertaerak» dituzte oinarri eta helburu jakinak dituzte unitatez unitate. «Lehen zikloan, adibidez, 6-7 urteko haurrekin, helburua neskei eta mutilei semaforo gorri eta berde berdinak jartzen ote dizkiegun aztertzea da. Horretarako semaforo gorriekin eta berdeekin aritzen dira. Eta pixkanaka diskriminazioko egoerak identifikatzen ikasten dute. Erronka fisiko baten aurrean, berdin ikusten al ditugu neskato bat eta mutiko bat? Zeini ateratzen diogu semaforo gorria eta zeini semaforo berdea?», agertu du programaren arduradunak. Lehenengo eta bigarren mailako neska-mutikoek azkar ikasten omen dute semaforoa erabiltzen eta desparekotasunaren aurkako lehen neurria horixe da: egoera diskriminatzaileak identifikatzen ikastea.

Adimen emozionala ere bereziki lantzen du Nahiko programak. «Jolas batean, txartel batzuen bidez, sentimendu desberdinak identifikatzen ikasten da. Balioak eta sentimenduak lantzea ezinbestekoa da, indarkeriaren aurkako tresnarik eraginkorra enpatia delako. Pena, poza, amorrua, beldurra identifikatzen ikasten dute haurrek, bai berengan eta bai ingurukoengan, eta sentimendu horien aurrean nola jokatzeko duten hausnartzen dute. Nola jokatzeko dute mutikoek? Nola

ENPATIA  
GORA ETA  
BORTXA  
BEHERA

Emakunderen Nahiko programak dagoeneko egin du ibilbidetxo, 2003. urtetik 4.000 ikasle inguruk parte hartu baitute bertan. Martxan zela emaitzak nolakoak ziren jakite aldera EHUri egin zioten enkargua eta neurketak utzitakoak baikorrak izan dira. Batetik, parte hartu duten haurrek kontzeptuzko aberastasun handiagoa dute, «parekidetasuna eskubideekin lotzen dute eta berdintasuna, aniztasuna eta horrelako kontzeptuak bereganatu dituzte». Horrez gain, Nahiko programan parte hartu duten haurrengatik berdintasuna bizitzeko modu bat da, tratu onekin loturikoa, eta garrantzitsutzat jotzen dituzte etxeko lanen banaketa eta erantzunkidetasuna. «Bizitzan zure ekintzen ardura hartzea, zure burua zaintzea eta ingurukoak zaintzea garrantzitsua dela ikasi dute neska-mutikoek», zehaztu dute Emakundetik. EHUk egindako neurketa horretan galdeketa batzuk bete zituzten neska-mutikoek programaren aurretik eta ondoren, «autoestimua, agresibitate eta horrelakoak neurtu zituzten eta ikusi zen agresibitate maila jaitsi egin zela, bai fisikoa eta bai hitzezkoa. Eta enpatia maila igo egin zen, batez ere mutikoetan. Egia esan emaitzak oso onak izan ziren eta ezuste ederra izan zen, denboran mugatua den Nahiko programak maila psikologikoan eragiten duela ikusi baikenuen», agertu dute programaren arduradunak.



Raquel Raposo, Emakundeko Programa arduraduna. Juanan RUIZ | ARGAZKI PRESS

neskatoek? Zein mezu helarazten zaie batzuei eta besteei halako egoeretan? Emozioen eta sentimenduen unitate hori oso garrantzitsua da enpatia lantzen laguntzen duelako», jarraitu du.

Bada gorputzaren inguruko beste unitate bat. «Gorputzetan desberdintasunak daude, bai, baina ez dute zertan generoari lotutakoak izan behar. Izan zaitezke indartsuagoa, arinagoa, bizkorragoa, trebeagoa... berdin neskatoa edo mutikoa izan. Mezu hori helarazteko helburua du gorputzaren inguruko unitateak».

#### BIZITZA EREDUA

Esan bezala, haurren adinaren arabera gai desberdinak proposatzen ditu Nahiko programak. Hirugarren zikloan, 5. eta 6. mailakoan, bada bizitza proiektuari buruzko unitate bat, 10 urtetik aurrera neska-mutikoen badutelako hazitakoan izan nahi dutenaren inguruan hizketan hasteko joera. «Bada joko oso polit eta esanguratsu bat. Hiru modu desberdinetan jokatzeko aukera ematen duen antzara-joko modukoa da: arrosa, urdina eta berdea. Joko arrosan eta urdinean haurrak toki berdinean iristen dira, helmuga berdina da, baina, aldiz, ibiltzen duten bidea oso desberdina da. Arrosan 'neskatoen bidea' jasotzen da, ipuinetan eta halakoetan jasotzen diren mezuei erantzuten diena: 'printze urdinaren' zain egoten dira, ez dute ekimenik, ez dira heroiak, heroiaren zain daudenak dira, pasiboak... Joko urdinean, 'mutikoen bidea' proposatzen da, betiere ipuinetako eta istorioe-

tako ereduak jarraituz. Mutikoak heroiak dira, erabakiak hartzen dituzte, ausartak dira, aktiboak... Joko arrosan eta urdinean toki berdinean iristen dira parte-hartzaileak. Baina, nolakoa da egin duten bidea?».

Joko horrek hizketarako eta gogoetarako aitzakia ederra ematen die neska-mutikoei. Eta irakasleak proposatzen dien alternatiba antzara-joko berdea da. «Bertan esaten da pertsona bakoitzak uneoro egin nahi duen bidea aukeratu beharko lukeela, bizitzan zer egin nahi duen eta nola egin nahi duen erabaki beharko lukeela. Irakasleek nabarmentzen dute joko hau benetan interesgarria eta baliagarria dela, gauza askoren inguruan hitz egiteko aitzakia eskaintzen duela», nabarmendu du Raquel Raposok.

Finean, Nahiko programak hazkuntza prozesuan dauden neska-mutikoen bidetik generoari lotutako mugak kendu nahi ditu. «Ez ditzatela mugak izan, neska-mutikoetatik espero ditugunak ez daitezela traba izan, beren emozioak libre kanpora ditzatela; neskek ausartak eta indartsuak izateko aukera izan dezatela eta mutilek lasai negar egitekoa. Ez ditzagun semaforo desberdinak erabili. Ikasgelan dagoen pertsona bakoitzaren onena atera behar du hezkuntzak, neskatoa edo mutikoa den kontuan izan gabe. Ikasketa emozionala oso garrantzitsua da, pertsona ororen oinarriak hor finkatzen direlako. Enpatia lantzea ezinbestekoa da, parean ditugunak berdinak bezala ikusten ditugunean zailagoa delako horien kontra indarkeria erabiltzea», bukatu du Raposok.

**«Adimen emozionala lantzea ezinbestekoa da, indarkeriaren aurkako tresnarik eraginkorrena enpatia delako. Pena, poza, amorrua, beldurra identifikatzen ikasten dute»**

**Finean, hazkuntza prozesuan dauden neska-mutikoen bidetik generoari lotutako mugak kentzea da helburua. «Neska-mutikoetatik espero ditugunak ez daitezela traba izan»**



Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS

## MONIKA EIGUREN

### IRAKASLEA

## «Egoera ederrak sortzen dira jolason aitzakian»

Lekeitioko Herri Ikastetxeak lau urte daramatza Nahiko programan parte hartzen. Monika Eiguren irakaslea da Lehen Hezkuntzako lehen zikloan eta hasieratik parte hartu du programan.

#### Gertutik ezagutzen duzu Nahiko programa. Nola baloratzen duzu?

Niri pertsonalki asko gustatzen zait; materiala oso ona da. Jolasetako txartel batzuetan erabiltzen den terminologia oso zaila egiten zaie hasieran eta azalpen bat behar izaten dute, gehienbat hitz berriak direlako euren hiztegian. Baina egia da gero haurrekin jolasean hasi eta oso-oso gauza interesgarriak gertatzen direla. Berba egiteko materiala da, haurrek beren esperientziak kontatzen dituzte... Benetan egoera ederrak sortzen dira jolason aitzakian.

#### Ikasleak ez ezik, irakasleak eta gurasoak ere hartzen ditu kontuan programak. Zuentzat ere bada, ezta?

Formakuntza oso baliagarria da, benetan hitzaldi interesgarriak izan ditugu; oso hizlari onak ekarri dituzte eta horiek laguntzen dizute ikuskera aldatzen, antiojo moreak janzten. Askotan pentsatzen dugu hezkidetzaz lortuta dagoela, baina gero eguneroko ekintzetan, zereginetan, gure hiztegian konturatzen gara esaten ditugunak ez direla beti egokiak. Adibidez, haur bati esaten diozunean, «esan amari josteko mantalaren botoi hori». Eta esaten ari zarela konturatzen zara nolako okerra egiten ari zaren. Zergatik amari eta ez aitari? Hezkidetzaz ez da lortu oraindik, eta irakasleentzako formakuntza saio horiek oso baliagarriak dira. Gainera,

beste ikastetxetako irakasleekin egoteko aukera eskaintzen dute, esperientziak trukatzeko, elkarri aholkuak emateko...

#### Hor ikasitakoa, gainera, egunerokoan eta etengabe erabil daiteke.

Bai, noski. Azken finean txipa aldatzea da kontua. Agian faltan igartzen dugu gurasoei zuzendutako formakuntza. Duela lau urte gurasoentzako hitzaldiak izaten ziren hiru hilero. Oso onak ziren, gurasoek asko parte hartzen zuten eta oso baliagarriak ziren. Geroztik hitzaldi horiek ez daude eta hutsune hori badago.

#### Lehen Hezkuntzari begirako programa da. Adin garrantzitsua da, ezta?

Oso garrantzitsua. Jendeak pentsatzen du neska-mutilen arteko arazo gehienak Bigarren Hezkuntzan ematen direla. Baina txiki-txikitatik landu behar da hezkidetzaz, dagoeneko 6-7 urteko haurren artean ikusten direlako joera sexistak. Pintura arrosa hartzeraz doan mutikoari lagunek esaten diote: «Ez hartu, hori neskena da». Edo mutikoei gehiago kostatzen zaie normalean musuak ematea. Haur Hezkuntzan agian presenteago daude emozioak, eta, maiz, Lehen Hezkuntzan emozioen kontu hori bazterrean uzten da. Programa honi esker emozioak, elkarbizitza, errespetua eta halakoak lantzen dira eta presente daude.

#### Matematika bezain garrantzitsuak dira ikasgai horiek, ezta?

Zalantzarik gabe. Eta haurrak gero eta helduagoak izan, badirudi matematikak gero eta garrantzi handiagoa duela, eta, adimen emozionalak, txikiagoa. Horri buruz pentsatu beharko genuke, eta emozioei merezi duten tokia eman.

# «Eskolak desoreka guztiak ezabatu eta gainditzeko pausuak eman behar ditu»



Lakuako Gobernuko Hezkuntza Sailak duela hilabete gutxi aurkeztu zuen "Hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana". Neurri mordoxka aurreikusten ditu, besteren artean ikastetxeetan hezkidetza arduradunak eta Eskola Kontseiluko berdintasun ordezkariak izendatu eta Berdintasun Batzordeak eratzea.

Eskolentzako formazioa ere jasotzen du planak; ikastaroak, laguntza aholkularitza eta materialak, esaterako. Etengabeko prestakuntza ere aurreikusten du: berdintasunaz, sexu aniztasunaz, hezkidetzaz eta genero indarkeriaz ikastaroak eta mintegiak eskainiko direla zehazten du, betiere irakasleen sentsibilizazioa lantze aldera. Eta familiei begirako formazioa ere proposatzen du. Horrez gain, curriculumari ere egiten dizkio ekarpenak hezkidetzaren norabidean, eta emakumeek garapen kultural eta zientifikoa indardun egindako lana na-

barmentzeko konpromisoa hartzen du.

Esandakoa, neurri mordoxka, denbora luzean hausnartutakoa, baina komunikabide askotako lehen lerrora oso modu bitxian iritsi direnak. «Eusko Jaurlaritzak futbola debekatu nahi du eskoletan 'sexista' omen delako». Horren antzeko izenburuetara laburtu du komunikabide askok plana.

Begoña Garamendi Lakuako Hezkuntza Berriztatzeke zuzendaria da. Haserre samar ikusi du plan osoa izenburu horren itzalean nola gelditu den. «Argitu nahiko nuke Eusko Jaurlaritzak ez duela debekatu eskolako patioan futboleko jokatzeke aukera. Ikastetxeek hartutako erabakia izan da, badutelako horretarako autonomia. Baina erabaki horiek oso ondo pentsatuta hartu dira. Lehenengo patioak aztertu dira eta ikusi da nola erabiltzen diren, nola banatzen den espazioa, zein joko eta kirol jokatzen

Lakuako Hezkuntza Sailak joan den azaroan aurkeztu zuen «Hezkidetza eta genero indarkeriaren prebentzioa lantzeko gida plana».

Jon URBE | ARGAZKI PRESS

diren, zer-nolako harremanak sortzen diren... eta, horien arabera, erabaki batzuk hartu dira. Lehenetsi da ikasle guztien gustuko jokoak eta kirolak egiteko aukera eman behar dela. Patio-ko aukerak aberastea da helburua eta horretarako eskolak antolatu egiten ditu jolas ordu horiek. Ikastetxe bakoitzak bere erara egiten du, baina garbi dagoena da oso ondo hausnartutako eta pentsatutako erabakiak

direla, jolastokian zer gertatzen den behatu eta aztertu ondoren hartutako neurriak direla», nabarmendu du Garamendik. «Garantziatsua ez da zertara jolastan diren, baizik eta abusuak eta portaera bortitzak ekidin eta ikasleen arteko tratua ona bultzatzea. Berdin ikasgelan edo patioan, aztertu behar duguna da ea ikasleen arteko harremanak errespetuzkoak, inposiziorik gabek eta bazterketarik gabek ote diren. Eskolak desoreka guztiak ezabatu eta gainditzeko pausuak eman behar ditu, eta espazio eta egoera guztietan ikasleen arteko harremanak parekotasunean eta tratua onetan oinarritutakoak direla ziurtatu behar du».

Bizi duguna parekidetasunaren irudikeria dela diote askok kezkatuta. «Inguruari begirada azkar bat botaz gero, publizitateak, filmek, bideo jokoek, agintarien argazkiek, giza sareek... argi uzten digute oraindik parekotasunetik urrun dagoen gizarte batean bizi garela, eta hori da, hain zuzen, ikasleek ikasten dutena. Eskola gizarte honen zati bat da, baita gizarte honen isla ere; beraz, gizartean ematen diren ezberdintasunak eskolak erreproduzitu egiten ditu, bai behintzat hori aldatzeko esku hartze zehatzak egiten ez baditu». Eta zenbait eskola dagoeneko aldaketa horretan hasiak badira ere, eskola gizartearen zati bat baino ez da, eta zaila da giza eragile gehienek kontrako norabidean igeri egitea. «Parekotasunean benetako aldaketak lortzeko komunitatearen laguntza behar du eskolak. Horrela eta ez

bestela, eskola aldatuz joango da, eta bere ingurua ere bai», iritzi dio Garamendik.

«Haurren kontuak dira», «beti horrela gertatu izan da», «gauza normalak dira». Neska-mutikoen arteko mikroindarkeria egoerak justifikatu egiten dira askotan. Garamendiren hitzetan, «belaunaldiz belaunaldi ohitura eta sinesmen batzuk transmititu ditugu eta horrek nolabaiteko normalizazioa sortzen du. Hala gertatzen da zenbait portaera bortitzekin, mikrobiolentziarekin; ume nagusiek txikiekiko izaten dituzten abusuak, mutilek neskek bultzatzen dituztenean, mutilek neskei gonak altxatzen dizkietenean...Ezin dugu ahaztu gure kulturaren oso sustraituta daudela sinesmen batzuk, adibidez 'Ongi nahi hauek, nigar eragingo dik' eta antzekoak. Sinesmen horiek, inkontzienteki, gure egunerokoa gidatzen dute, eta, prezio berdi-

nean, umeei ere transmititzen dizkiegu».

Haurrak etorkizuneko helburuak dira, eta haurtzaroen finkatzen diren oinarri eta zutabeek pisu handia izango dute gerora pertsona horren mundu ikuskeran. Horregatik da hain garrantzitsua neska-mutikoei hezkidetzaren atea zabaltzea. Garamendiren esanean, «garrantzitsua bezain funtsezkoa». Badira betidanikoak izan diren eta oraindik oso bizirik dirauten joera kezagarriak ere. Hezkuntza Saileko arduradunaren hitzetan, «adi egon behar dugu, esaterako, zergatik ikasle batzuek indarkeriaz, bazterkeriaz edo irainez tratatzen dituzten beste batzuk. Gainera, erasotzaileak, sarri, ikasle ezagunenak edo errekonozimendu gehien jasotzen dutenak izaten dira. Horrelakoetan helduok –senideak eta irakasleak– kontu handia izan behar dugu. Izan ere, geure joka-

**«Garrantzitsua ez da zertara jolasten diren, baizik eta abusuak eta portaera bortitzak ekidin eta ikasleen arteko tratu ona bultzatzea. Berdin ikasgelan edo patioan»**

**«Adi egon behar dugu zergatik ikasle batzuek indarkeriaz, bazterkeriaz edo irainez tratatzen dituzten beste batzuk. Gainera, erasotzaileak, sarri, ikasle ezagunenak izaten dira»**

Begoña Garamendi, Lakuako Hezkuntza Saileko Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria.  
Raul BOGAJO | ARGAZKI PRESS

bideen bitartez, ikasle batzuen populartasuna eta jokabide erasotzailea indar ditzakegu edo, kontrara, jokamolde parekideak eta berdinen arteko tratu onak bultzatu eta indar ditzakegu. Horregatik oso garrantzitsua da helduok zer jarrera hartzen dugun ikasle, gazte eta umeen zenbait jarreraren aurrean».

Hezkidetzaren planak haurrengan ez ezik, irakasleengan eta familiengan ere jartzen du begirada. Izan ere, ezinbesteko jotzen du denek «betaurreko moreak» janztea. «Betaurreko moreak eta kolore askotakoak jantzi behar ditugu. Parekotasuna bultzatu

behar dugu familiak, irakasle-riak eta ikasleriak, denok batera. Horretarako, lehen-lehenik, desberdintasunak non dauden, bortitzkeriak non, nola eta zergatik gertatzen diren detektatzen ikasi behar dugu. Behin detektatuta ditugula, desberdintasun eta indarkeria horiek nola gainditzen diren ikasi behar dugu, ondoren hezkuntza komunitate osoak horren alde lan egin dezan».

Hezkidetzaren planak haurrengan ez ezik, irakasleengan eta familiengan ere jartzen du begirada. Izan ere, ezinbesteko jotzen du denek «betaurreko moreak» janztea. «Betaurreko moreak eta kolore askotakoak jantzi behar ditugu. Parekotasuna bultzatu behar dugu, guztiok dugu asko irabazteko erronka honetatik. Hezkuntzan ezinbestekoa da guztiok kontuan izatea, berdina izateko eskubidea dugu baina norbanakoaren desberdintasunak errespetatuz. Denok gara ezberdin baina eskubide berberak ditugu guztiok».

#### INDARKERIAREN PREBENTZIOA

“Hezkidetzaren planak haurrengan ez ezik, irakasleengan eta familiengan ere jartzen du begirada. Izan ere, ezinbesteko jotzen du denek «betaurreko moreak» janztea. «Betaurreko moreak eta kolore askotakoak jantzi behar ditugu. Parekotasuna bultzatu behar dugu, guztiok dugu asko irabazteko erronka honetatik. Hezkuntzan ezinbestekoa da guztiok kontuan izatea, berdina izateko eskubidea dugu baina norbanakoaren desberdintasunak errespetatuz. Denok gara ezberdin baina eskubide berberak ditugu guztiok».

“Hezkidetzaren planaren izena osoa, ulertzen baita indarkeria matxistaren kontra egiteko parekidetasunaren zimentu gainean eraikitako gizarte bat beharrezkoa dela, «parekidetasunean oinarritutakoa eta balore, jarrera eta portaera sexistak baztertzen dituena», zehaztu du. Hezkuntzak, zalantzarik gabe, badauka bere parte zimentu horien eraikuntza. «Hezkuntzan erantzukizun handia dugu. Ezin gaitzake zain gelditu gizarte justuagoa izan arte. Hezkuntza komunitatearen laguntzarekin aurrera egin behar dugu, hezkuntzakook gizartearen eragin ahal dugulako, eta, gurean, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak apustu irmoa egin du ikastetxeak bide horretan sartu ahal izateko», bukatu du.





MARTXOAK

8

00 | 2014

# FEMINISMOTIK BERDINTASUNA ERAIKITZEN

[www.donostiaberdintasuna.org](http://www.donostiaberdintasuna.org)

**MANIFESTAZIOA**  
(Mugimendu Feministak deitua)  
ILUNTZEKO 19:00ETAN  
BOULEVARDEAN

HIRIKO  
ESPAZIOAK  
GUREGANATUZ

AURREKONTUAK  
GENERO  
PERSPEKTIBATIK

III UDAL  
BERDINTASUN  
PLANA

EMAKUMEEN  
ETXEA  
(Okendo, 9)



Donostia Uda  
Ayuntamiento de San Sebastián

Berdintasuna  
Igualdad

# «FESTA DEZAGUN GAURDANIK GEROA»

Jaietan emakumeek duten rolaz gogoeta eginarazten duen dokumentala

📁 GIZARTEA / oihana.llorente@gaur8.info

Tradizioei traizio egin eta bestak gozatzeko gonbidapena luzatzen du Bilgune Feministak eta Emaginek elkarrekin ekoitzi duten dokumentalak. Hainbat festa lagin hartuta, jai ereduaren inguruko hausnarketa feminista iradokitzen du. Diskriminazioaren aurrean begiak ireki eta jai parekideen bidean ahaleginak egiteko tresna izan nahi du lanak.

**F**estak izan ohi dira herrien erakusleihen gardenenak. Galaz janzten ditugu kaleak eta urte osoan entseatutakoak luzitzen dira orduan. Egitarau oparoan gure onena eskaintzen dugu eta herritar guztiak aurkitzen dute non gozatu. Baina, ziur al gara horrela dela? Gure herrien irudi onena plazaratzen al dugu egutegian gorri adierazitako egun horietan?

“Festa dezagun gaurdanik geroa” dokumentalak jai ereduaren inguruko gogoeta feminista iradoki nahi du. Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emagin elkarteak elkarlanean egindako lan honekin, emakumeen parte hartzearen inguruko hausnarketa plazaratu nahi izan dute. Finean, bestelako jai ereduak sustatzeko eta kontzientzia pizteko tresna izan nahi du ikus-entzunezko lan

honek. Euskal Herriko jai desberdinak izan dituzte atrezzo, dokumentala osatzen duten 27 elkarrizketak egiteko gune. Herrialde desberdinetako herritarrez gain, musikariek, bertsolariak, antropologok edota harri-jasotzaileak hausnartzen dute emakumeen parte hartzeaz.

Baionako bestetan antolatzen den brigada feminista, Hernaniko San Juan jaiak, Irun-

**Euskal Herriko jaiak izan dituzte atrezzo, dokumentala osatzen duten 27 elkarrizketak egiteko gune. Bertsolari, musikari edota antropologoaren iritziak bildu dituzte**

**«Erraza da alboko herrian diskriminazioa ikustea, norberak bere herrikoa ikustea izaten da zailena. Muturren aurrean gertatuta ere, maiz ez gara konturatzen»**

go alardea, Iruñeko San Fermin jaiak edota Baztango mutil dantzak ikus daitezke 30 minutu irauten dituen dokumentalean. Bestetik, orain arte gizonetzkoen gune ia eskusibo izan diren musika emanaldietan, herri kiroletan edota bertsoen munduan emakumeak ematen ari diren urratsak jasotzen ahalagindu dira.

Irungo edo Elbeteko jaietako iskanbilek albistegiak bete izan dituzte maiz. Parekidetasuna zalantzen jartzen dituzten parrarteak ikusteko, baina, ez da urrutira joan behar. Argi du hori Euskal Herriko Bilgune Feministako kide den Idoia Trenorrek eta bidegabekeria asko oharkabean pasatzen zaizkigula nabarmendu du. «Muturren aurrean gertatuta ere, maiz ez gara konturatzen, erabat normalizat josten ditugu hainbat diskriminazio», salatu du.

Tradizioa eta herri ondarea bere horretan mantentzeko aitzakian, ezin dira bestetan gertatzen diren jarrera diskriminatzaileak irauterazi. Hala aldarrikatzen dute ikus-entzunezko honen 27 protagonistek. Dokumentalean ageri den antropologoaren aburuz, gainera, tradizioak noizbait asmatutako ohiturak dira. «Sortze uneko jendartearen baloreen isla dira,



**euskal herriko bilgune feminista**

*Euskal Herri Feminista lortze bidean, egin zaitzez. Bidelaqun Feminista eta jaso Emaraun berripapera.*

info@bilgunefeminista.org  
www.bilgunefeminista.org

**EMAGIN**

**IKASTARO- HITZALDIAK**

- Autodefentsa Feminista.
- Festa dezagun, gaurdanik geroa (jai feministen lanketa).
- Mugimendu Feministaren Historia.
- Hezkidetzak.
- Ekin Feminismora!

e-posta: emaginarbtxboa@gmail.com

**Ikasiz jakin, eginez ekiteko!**



egungo gizartearen eredu izan daitezzen garatu eta aldatu beharrekoak. Aldaketei atea ixten dieten tradizioak hiltzera kondatuta daude, hiltzera edo museoko objektu izatera derrihortuta», nabarmentzen du.

Jai parekideak sustatzeko bidean zaindu beharreko arlo asko daudela gaineratu du Trenorrek. Antolaketa, egitaraua, oholtza gainean edota bozgorailuetan entzuten den musika, karteletan erabiltzen diren irudiak eta hizkuntza dira zerrendatutako batzuk.

Ekhiñe Muguruza eta Usoa Garin arduratu dira grabazio eta edizio lanez eta gustura daude emaitzarekin. «Lan freskoa da eta jaien bat-batekotasuna jasotzen du», nabarmendu du Muguruzak. Zarautarrak dira biak eta Euskal Herriko Bilgune Feministak bertan duen taldeko kide dira. Bertan sortu zen ikusentzunezko hau egiteko ideia eta Gipuzkoako Aldundiaren di-

ru laguntzaren bidez egikaritu ahal izan dute egitasmoa.

Jaietan emakumeek bizi dituzten erasoak salatzea zuen hasierako helburu dokumentalrak, bidea egin ahala, baina, gidoia osatzen eta eraldatzen joan zen. «Elkarrizketak egin ahala oharu ginen gai asko daudela tartean. Emakumeek sufritzen duten indarkeriaz gain, tradizioa, herri kirolak, musika, jaien antolaketa... daude tartean –ekarri du gogora Garinek–. Grabaketa bukatuta material ugari genuen, baina, aldiz, nondik hasi ez genekiela ibili ginen. Elkarrizketa guztiak transkribatu eta puzzle baten moduan egin dugu muntaia».

Grabaketa lana ez da xamurra izan. Hala aitortu dute biek. Elbeten, adibidez, Garbiñe Elizegi Baztango alkatea dantzara sartu eta bakarrik gelditu zen uneko testigu pribilegiatuak izan ziren biak. «Gerta zitekeela bagenekien, baina behin gertatuta ezin erreakzionatu geratu ginen»,

ekarri dute gogora. Festa giroaren erdian bi neska kamera eskuetan aritzea ere ez zen egiteko atsegina izan. «Erasoak salatzea joan eta Baionatik kasik alde egin behar izan genuen», salatu zuten zarautzar hauek.

#### GARAPENAREN EMAITZA

Gorabeherak gorabehera, «irakaspenera ederra» izan da dokumentalaren ekoizpena bi zarautzar hauentzat. «Erraza da alboko herrian diskriminazioa ikustea, norberak bere herrikoa ikustea izaten da zailena», dio Muguruzak. Dokumentalrak, beraz, errealitate hauen aurrean begiak irekitzeko tresna izan nahi du.

Herrietako jaiak beti izan dira Bilgune Feministaren lan esparru. Izan ere, erakundea 2002an sortu zenetik hamaika kanpaina egin dituzte uda sasoiari. «Hasi-eran eraso eta indarkeriaren salaketara mugatzen ginen soilik –ekarri du gogora Trenorrek–. Ondoren, autodefentsa feminis-

Dokumentalaren aurki daitezkeen pasarte bakan batzuk dira goikoak. Lehendabizi, Elbeteko mutil dantzak. Jarraian, Orioko herri kirolak, Baionako brigada feminista eta Irungo alardea.

GAUR8

taren mezua eta praktika txertatu genuen kanpainotan. Azken urteetan pausu bat harago joan eta emakumeek jaietan gozatze-ko dugun eskubidea aldarrikatzeari ekin diogu». Trenorrenzat, gainera, dokumentala ibilbide eta garapen horren emaitza da.

Zarautzen egin zuten lehen aurkezpen publikoa pasa den otsailaren 20an. Aurrerantzean, baina, herriko jaietan parte hartzen duten jai batzorde, kultur eragile, tabernari, asanblada edota norbanakoak dokumentalaren ikusle bilakatu nahi horretan Euskal Herrian barna arituko dira emanaldiak eskaintzen. Trenorrek iragarri bezala, gainera, dokumentalarekin batera hausnarketarako baliagarria izango den dinamika sorta ekoiztear da Bilgune Feminista. Hala, dokumentalaren emanaldia eskaintzeaz gainera, nahi duten herri eta auzoetan jai eredu inguruko tailerra ere antolatu dute.



**Beñat Gaztelumendi**  
Bertsolaria

## Tolosa

**Inauteriak dira nire egutegian; egunero arropa ezberdinez jantzen dira zenbakiak, efemeride eta aldarrikapenez mozorrotzen dira esnatzen naizenean eta arropak erantzten dituzte lotarakoan, biharamunean beste mozorro batekin esnatzeko.** Euri zaparradak ikusten ditut oraindik Tolosako kaleetan eta jendea, jendea, jendea eta jendea batera eta bestera, bakoitza bere kolorearekin, bere mozorroarekin; pailazoak, tenislariak, dantzariak, Barcina, buzoiak, punkak eta euria, euria goian eta behean eta plastikozko edalontzi hutsak lurreko putzu lokaztuetan edaten.

Gogoratzen ditut ikastola garaiko desfileak, denok berdin jantzita ateratzen ginen arratsalde horiek. Gero ikasi genuen zapatiletan korapiloak egiten eta, auskalo, agian ordukoa izango da eztarrian sabelean eta buruan ere korapiloak egiteko joera hau, kalean begiradekin korapilatzen ere orduan ikasiko genuen; zapatilak lotzea eta askatzea bezalako izango da begiradekin korapilatzea eta askatzea. Mundua urdina eta arrosa zen orduko marrazkietan, eta azkar ikasi genuen urdinak ginela gu eta arrosak zirela urdinak ez zirenak. Tartean ez zegoen beste kolorerik. Eta gure kolore urdineko txandala ume-kontua zela ikasi genuen gero, bakeroak jantzi behar zirela kalean ibiltzeko eta elkarri bostekoa eman behar geniola batzuetan besarkatzeko gogoa sentitu arren, inauteriak dira egutegian eta inauteriak dira gugan; mozorrotzen ikasi genuen umetan eta orain horrela ateratzen gara kalera; kalegarbitzaileek eraman dituzte inauteriak Tolosatik; lokaztutako putzuetan igerian dabiltzan edalontzi hutsak eta norbaitek galdutako pelukak, jostailuzko gitarrak, hegoak, eraztunak...

Eta eguneroko jantziekin iritsiko dira egunak bata bestearen atzetik, desfile batean bezala; loreak parkeetan eta maiteminduak bankuetan; ogia besapean daramaten erretiratuak eta etxerako poltsaz kargatutako etxeko-andreak, nor go-

goratuko da inauteriekin jadanik, mozorroak pertxatik zintzilik egongo dira honezkero, datorren urteko egutegiek berriz jantzeko agintzen duten artean; nahi ditugun arropak jantzita atera gara kalera bost egunez eta begiak etxeko pertxaren batean zintzilik utzi ditugu; aurreiritziak erantzi ditugu eta ez gara urdinak eta arrosak bakarrik izan, kolore berriak asmatu ditugu, edo barruan generamatzaneia ateratzen utzi diegu, mundua desordenatuegia da bi taldetan banatzeko; inork agindu gabeko arropak jantzita ibili gara kaleetan txandalak, bakeroak edo askatutako zapatilak ziren begira aritu gabe.

**Eta orain erlojuak itzuli zaizkigu esku-muturretara eta egunerokotasunak jan dizkigu koloreak; mundua arrosa eta urdina da berriz,** aurreiritziak jantzi ditugu, begiak jantzi ditugu eta kalera irten gara, egunero bezala; inauterietan mozorrotu egiten gabela esaten digute, baina zer jantzi du-

gu gaur; orain nor gogoratzen da farolarik gabeko kaleetan ezkututzen diren itzalekin; berriz ere ahula zarela esango dizute zuri; berriz ere nabarmena izan nahi duen ahots hau aterako zait barrutik eta esan digutena izango gara; jantzi ezberdinez jantziko gara, ohitura ezberdinez, posizio ezberdinez, eta desfilean aterako gara, urdinak alde batetik eta arrosak bestetik, galderak ere kalegarbitzaileek eraman dituzten kale hauek, zu emakume eta ni gizon, bakoitza bere koloreekin; plaza nirea izango da eta ertz batetik isilik begiratu behar duzula esango dizu zuri estuegi geratu zaizun mozorroak. Eta gaur urteroko galderak egingo dizkiogu gure buruari, urteroko zalantzak korapilatuko zaizkigu zapatiletan eta une batez ez gara hain urdin, hain arrosa izango; sorbaldetan zintzilikatutako mozorroak erreparatuko ditugu, mozorroa non bukatzen den eta ni non hasten naizen asmatu nahian. Inauteriak dira nire egutegian eta, norenak dira martxoaren 8a ez diren egunak? •



Jon URBE | ARGAZKI PRESS

{ koaderno } **Koldo Almandoz**

# Putzura

**M**artxoak 8an kaleratzen den GAUR8rako idaztea tokatu zait. Egia esatea nahi baduzue, ez nuen hain egun seinalatuaren inguruan idazteko asmorik. Eskuarlean duzun GAUR8 aldizkariak, ordea, “monotematikoa” izan behar zuela komentatu zidaten. Nagi handia sentitu nuen. Denbora igaro ahala nagiak ez nau abandonatu, baina, beste aukerarik ez dudanez... putzura. Hain zuzen ere, hori da orokorrean gizonok egiten duguna gai honen inguruan hitz egiten dugunean: putzuetan sartu. Erremediorik gabe. Nahiz eta ekiditen saiatu, nahiz eta saltotxoak eman edota hanka puntetan pasatzen saiatu, beti putzuan amaitzen dugu. Hiru jarrera nagusi izaten ditugu:

**A) «Matxo Alfa» jarrera:** Normalki, gizonen artean gaudenean eta zuzentasun politikoaren kortsea askatzen dugunean, emakumeen inguruko txantxa eta aipamen sexistak egiten ditugu –gauza bat argi dagoelako, fantasiak eta desioak ez dira politikoki zuzenak izaten–. Watxap bitartez Samantha Foxen argazkiak elkarri bidali eta, beren hegemonia galdu duten orein zaharren moduan, inguruan dabiltzan Bambiei erreparatzen diegu.

**B) «Bai baina ez» jarrera:** Zuekin nago baina ez zait hau edo beste hori ongi iruditzen. Feminismoa matxismoarekin parekatzen dugu. Bai bata eta bai bestea jarra

ra “erradikalak” direla esaten dugu. Baina beno, zuekin gaude, e! Berdintasunaren alde badakizue... Hala ere, zergatik ezin dugu guk ere parte hartu Lilatoian?

**D) «Femimutil» jarrera:** Elkartasuna adierazi eta emakumeen alboan agertzeko aukerarik galtzen ez dugunean. Argi gera dadila gure Twitter, Facebook eta diskurtso publikoan guk ere bularra erakutsiko genukeela emakumeen alde. Emakumeak azkarragoak eta sentsibleagoak zarete eta sufritzeko gaitasun handiagoa duzue eta...

Maite dituzuen –eta normaltzat dituzuen– senar, nobio, anaia, lagun eta lankideak A, B eta D eredu nahasketak bat izaten gara gehienetan. Unearen arabera, konpainiaren arabera edota egoeraren arabera hizki batek bestea gailentzen du.

Nik uste pertsona normal orori, A, B eta D gizonetzkoak barne, ulergaitza, salagarria eta injustua iruditzen zaiola

emakumeek lan berdinegatik gutxiago kobratzea, agintaritzaren postuetara iristeko zailtasunak izatea, gauzez etxera bakarrik itzultzea beldurraren eta arriskuaren sinonimo izatea, oraindik bere gorputzaren jabe izateko aldarrikapena egiten ibili behar izatea... baina, lehen esan bezala, gai hauez hitz egiterakoan ia ezinezkoa zaigu putzuetan ez sartzea.

Iazko San Fermin jaietan gertatutakoa adibide. Bularrak erakusten zituzten neskei eginiko erasoak salatu eta kritikatu zituzten gizonen berehala etorri zitzaizkien buelta hainbat blog eta artikulutan. Bat-batean, jarrera paternalista batetik emandako iritziak omen ziren, emakumeen beren sexualitatea nahi zuten moduan bizitzeko aukera ukatzeko beste modu bat. Ikuspuntu hori ere ez zen orokorra. Askatasuna ardatz duten giza mugimendu guztietan gertatzen den bezalaxe, feminismoan ere *beatlestarak* eta *rollingtarak* daudelako.

Nahiz eta ekiditen saiatu, nahiz eta saltotxoak eman edota hanka puntetan pasatzen saiatu, feminismoaz hitz egiten denean gizonok beti putzuan amaitzen dugu

Ia-ia amaitu dut artikulua.

Behin eta berriro irakurri eta gauza asko ezabatu eta aldatu ditut.

Azkenean nahiko D jarrerakoa geratu zait. Baina sintzerioa izango nintzela esan dut hasieran. Zenbatetan pentsatu dut serio eta benetako interesarekin honetaz guztiaz? Zer dakit nik feminismoaz? “Behartuta” ez baltz, idatziko al nukeen eskuarte duzuna? Nire etxeko liburategietako apaletan txorien inguruko liburu mordoxka topatuko dituzue. Generoaren, feminismoaren edota emakumeen ingurukorik apenas. Gehiago dakit enarei buruz feminismoaz baino. Eta horrek hitz aspertu honek guztiak baino hobeto definitzen nau.

Arlo honetan, bizitzaren arlo gehienetan bezalaxe, izatea gustatuko litzaidakeen pertsonaren eta naizen pertsonaren artean amildegi bat dago. •

# JABETZE ESKOLAK

## Ikusten uzten ez digutena ikusarazteko eta iraultzeko tresnez gaitzeko topagunea

📁 GIZARTEA / amalur.artola@gaur8.info

**E**z zaigu ezagutzen dugun mundua gustatzen, eta ez zaigu gustatzen bi arrazoigatik: ez di-tuelako emakumeon eskubideak kontuan hartzen eta bermatzen, eta ez delako mundu jasangarri bat. Feminismoa, funtsean, emakumeen defentsarako teoria bat da, mundu jasangarri baten alde egiten duena. Eta horregatik egiten dugu guk feminismoaren alde, horrela soilik lor daitekeelako emakumeekiko errespetuzkoa den mundu bat». Eta horretarako lanabesa dira, Maite Barreñaren ustez, Jabetze Eskolak. Arrasateko Emakume Etxeko berdintasun teknikaria da Barreña eta, bertan, hamarkada bete daramate Jabetze Eskolak antolatzen.

“Jabetze” kontzeptuak, termino gisa, Erdialdeko Amerikan du jatorria eta Euskal Herrira orain hamarkada pasa iritsi zen. Barreñaren iritziz, jabetzeak «feminismoaren historia modernoan jasotzen den teoriaren baitan kokatzen den planteamendu bati» egiten dio erreferentzia, eta, finean, emakumeak feminismoa hurbildu eta euren burua subjektu aktibo gisa birkokatzea du helburu: «Jabetzea norbere buruaren jabe egitea da, ‘ni naiz nire buruaren eta gorputzaren jabe, nik agintzen dut nire baitan eta nik erabakitzen dut momentu honetan zerenolako emakumea izan nahi dudan’ esatea da». Emakumeak bere errealitatearen kontzientzia hartu eta bere eskubideen jabe egitea, alegia. Baina baita gehiago ere: prozesu pertsonaletik abiatuta, emakumeak inguruan duen errealitatean eragiteko gaitasuna eskuratzea ere bada jabetze prozesuaren parte: «Bere eskubideen jabe egiteaz batera, emakumea inguruan duen errealitatearen jabe egiten da. Bere ingurua eraikitzeo gai bilaka-

Adiera bikoitza izan dezake «jabetze» hitzak. Ohartu eta jabe egin. Jabetze Eskoletan, adiera bat bestearen atzetik doa: egunerokotasunean emakume izate hutsagatik jasaten dugun diskriminazioaren norainokoaz ohartu behar dugu gure buruaren, gorputzaren zein gogoaren jabe egin eta errealitatean eragiteko. Horretarako daude Jabetze Eskolak.

tzen da. Guk feminismotik eraldatu nahi dugu mundua, eta, horretarako, prozesu pertsonal eta kolektibo batean sartzen gara, non guretik hasita sare bat eraikitzen dugun gainontzeko emakumeekin batera. Sare horretatik abiatuta, eta betiere gizonezkoekin lot daitezkeen aliantzekin batera, gura dugun mundua eraiki dezakegu. Izan ere, pertsonok, bakoitzak bere esparru eta neurrian, bizi garen munduarekiko erantzukizun bat dugula uste dugu».

### BARRUTIK KANPORAKO PROZESUA

Jabetzeak, beraz, emakumearen errealitatea hautemateko eran aldaketak egotea dakar berarekin, baita, aldi berean, errealitate horretan subjektu aktibo gisa eragiteko gaitasuna eskuratzea ere. Baina prozesu hori ez da bakarrik etortzen: eragin egin behar da. Eta, hain zuzen, horretarako sortu ziren Jabetze Eskolak.

Euskal Herrian, Bizkaian sortu ziren lehenak, 2003. urtean, eta handik gutxira abiatu zen Arrasateko Jabetze Eskola, Hernani, Eibar eta Azpeitikoarekin batera, guztiak ere udalotako Ber-

**«Jabetze Eskolan, sentitzen ditugun gauzei izena ipini eta ondokoak antzeko sentimendu eta bizipenak dituela konturatzen gara. Horrek gure barnean zerbait aktibatzea dakar»**

**«Emakumeak ez garela libre esateak garrantzia du, baita gure askatasuna aldarrikatzeko eta gure defentsa egiteko erremintak guk geuk ipini behar ditugula nabarmentzeak ere»**

dintasun Sailak bultzatuta. Sarean lan egin izan duten lau horiez gainera (berriki Urola Garaia ere sartu da sare horretan), euren kabuz Jabetze Eskolak sortu eta kudeatzen dituzten «udal pila bat» daudela baieztatu du Barreñak (zenbait lekutan “Jabetzuntza Eskola” izena hartzen dute). «Azken urteetan hedatu egin dira, gainera, eta bakoitzak egiten du bere eskaintza».

Eskaintza hori anitza da oso. Azken urteotako Jabetze Eskola ezberdinetako programak begiratzea besterik ez dago. Izan ere, “Autodefentsa tailerra”, “Jendaurrean hitz egiteko teknikak”, “Blogak eta komunikazio digitala”, “Munduko emakumeen literatura”, “Gure erotismoa: sedukzioa, zentzumenak eta espazio pertsonala”, “Irakurbide feministak”, “Komikigintza”, “DJ tailerra”, “Antzerkia”, “Gure emozioak lantzen” eta “Autoa prest izateko mekanika ikastaroa” dira azken urteotako programon eskuorrietan topa daitezkeen proposamenetariko batzuk.

Ikastaroen aniztasunagatik galdetuta, jabetze prozesua «ikuspuntutik zabalenean» ulertzen dutela azaldu du Barreñak. «Pentsatzen dugu gure buruaren jabe izateko bidean esparru asko zabaltzen direla, eta, orduan, guk horretarako bitartekoak eskaintzen ditugu, gu gero eta seguruago sentitzeko, gaitasunak eskuratzeo, gurea dena defendatzeko edo pentsatzen duguna adierazteko», azaldu du. Funtsean, emakumeak euren buruarekin eta gorputzarekin gustura egoteko eta espazio publikoan aritzeko bitartekoak di-

ra eskaintzen dituztenak, ikastaro formatuan: «Aukera oso zabala da. Adibidez, argazkigintza ikastaro batekin emakumeen aurkako biolentzia landu izan dugu, edo autodefentsa tailerra baliatu izan dugu emakume gazteekin biolentziaren gaia jorratzeko eta, bide batez, norbera feminismoa hurbiltzeko. Estrategia ezberdinak erabiltzen ditugu eta, azken urteotan, nolabait feminismoaren ezagutza bultzatu eta irtenbide kolektibo edo ideologia modura zabaltzeko ahalegina egin dugu, batez ere emakume helduen kasuan, pentsatzen dugulako adin batetik aurrerakoentzako feminismoa deabrukeria moduko zerbait zela; emakume erradikal batzuek gizonezkoen kontra egiteko erabiltzen duten zerbait. Eta hori ez da hala». Era berean, «ustezko berdintasunean» hazi diren emakume gazteak feminismoa hurbiltzeko egitea bideratzen dute: «Batzuek ez dute feminismoa ezagutzen eta, nolabait, feminismoarekiko defentsibana kokatzen dira, jada berdintasun batean biziko balira bezala...». Gazteei begira, “Autodefentsa feminista” tailerra goraiatu du: «Agerikoa da kalean emakumeak ezin garela libre izan, gazte zein heldu, tentuz ibiltzen garela. Emakume guztiok bizi dugun errealitate bat da. Horri izen bat ipintzea, zergatik emakumezkoak ibiltzen garen horrela eta gizonezkoak ez, eta hori horrela den bitartean emakumeok ez garela libre esatea garrantzitsua da, baita gure askatasuna aldarrikatzeko eta gure defentsa egiteko erremintak guk geuk ipini behar ditugula nabarmentzea ere. Eta, horri guztiari izena ipintzen diogunean, gazteek ‘joe, egia da’ esaten dute».

Izan ere, Jabetze Eskoletan zerbait egiten bada errealitate eta sentipenak identifikatu, izendatu eta kolektibizatzea da. «Jabetze Eskolaren prozesuaren



baitan, askotan sentitzen ditugun gauzei izena ipintzen diegu eta, era berean, ondokoak ere antzeko sentimendu eta bizipenak dituela konturatzen gara. Horrek gure barnean zerbait aktibatzea dakar». Bilakaera horretan emakume bakoitzak bere prozesu eta erritmoak dituela dio Barreñak, eta garrantzia ematen dio prozesu indibidualetik kolektiborako jauzia egiteari: «Nigandik hasita, ni bakarrik ez naizela sentitzeak eta txikiak badira ere aldaketak bul-tzatzeke gaitasuna izan dezakegula ikusteak boterea ematen digu, gaitasuna, eta Jabetze Eskolan grina hori piztu baino ez da egiten. Eta, behin grina, gogo eta boterea bere zentzurik zabalen, onenen eta politikoe-nean sentitzen ditugunean, olatu bat zabaltzen da. Orduan, guk olatuak sortzen ditugu». Iraultza txikiak, metatuz eta elikatuz emakume horiek inguruan duten errealitatea eraldatzera irits daitezkeenak.

«Guk ideologia lantzen dugu. Ez gara neutroak. Feministak gara. Eta Jabetze Eskoletan feminismoa lantzen dugu. Esplizitu ki edo zeharka, baina feminismoa lantzen dugu. Partaideen artean badaude era guztietako emakumeak; emakume feminista militanteak etortzen dira, baina baita feminismoaren inguruan askorik galdetzen ez duten emakume gazteak, hitzez feminismoarekiko dituzten erreparoa adierazten dituztenak zein feminismoaz ezer jakin nahi ez dutenak ere. Orduan, zer egiten dugu? Testuingurua kokatu. Esate baterako, legeetan berdintasunak ikus ditzakegula baina hori gero emaitzetan ez delako egikaritzen, eta hori emakume guztiok ikus dezakegu, baldin eta ikusi nahi badugu». Mendez mendez, sistema patriarkala emakumeen aurkako diskriminazioa «mozortzen» joan dela eta egungo gizartea «berdintasun faltsu» baten baitan murgildua dagoe-

**Maite Barreña eta Amets Beltran de Gebara, Arrasateko Emakume Txokoko berdintasun teknikariak.**  
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

la uste du Barreñak. Baita “normaltzat” hartu beharko ez genituzkeen zenbait jarrera edo jokabide “normaltasunez jantzen” ditugula ere. Biolentzia matxistaren kasua jarri du adibide: «Ez dago biolentzia matxista jasotzen ez duen emakumerik. Intentsitate ezberdinarekin, baina denok jasotzen dugu. Beste gauza bat da ikusi gura izatea. Eta ez ikusiarena egiteak ez du biolentzia hori

desagerrarazten. Emakumeen aurkako biolentzia matxista egunerokoa da; kontua da ispilu baten aurrean ipintzea eta errealitatearen aurrean kokatzea».

Faltsututako errealitate horrekin haustura eragitera datoz Jabetze Eskolak: «Ustezko berdintasun horretan bizi, hezi eta hazi diren emakume asko harritu egiten dira feminismoarekin topo egiten dutenean; batzuek, esango nuke, errezeloz ere har-



tzen dute. Baina horren agerikoa da diskriminazioa, guk agerian utzi besterik ez dugula egin behar emakume horiek zerbait ondo ez doala ikus dezaten. Ez dugu ezer asmatu behar, egunerokotasunean gertatzen diren gauzak agerian utzi eta izena ipintzea nahikoa da. Behin izena ipinita hain da erreala...».

Emakumeen eskubideen alde egiten duen planteamendu ideologiko eta politikoa izateaz gain, feminismoa mundua eraldatzeko apustu politikoa ere badela sinesten du Barreñak. Alde horretatik, Jabetze Eskoletan parte hartzen duten emakumeetan ematen den eraldaketarekin pozik azaldu da: «Feminismoarekiko badago uste oso interesatu bat, patriarkatuak erabili eta saldu duena, eta konturatzen gara oso ezezagunak direla benetan feminismoaren baitan egiten diren planteamendu eta proposamenak. Ate honetatik pasatzen diren emakumeengan ilusioa pizten da, eta, niretzat, pertsonalki, gozamen hutsa da hona etortzen diren emakumeak atetik euren burua feminista-tzat definitzen irteten ikustea, harrotasunez gainera».

#### LIBREAGO, SEGURUAGO, DUINAGO

Jabetze Eskolak emakumeoi zerbait erakusten badigu gure neurrira egin ez dagoen mundu batean bizi garela da. «Gizonentzat pentsatu eta eraikitako mundua da, eta emakumeoi esaten digute badugula kabida mundu horretan. Baina gure neurrira egin ez dagoen soinekoan sartzea bezalakoa da: hemendik zabalegi dugu, hortik estuegi eta han ko-



rapilatu egiten zaigu. Soineko horretan ezeroso sentitzen gara emakumeak; ez da gure soinekoa, ez gara ondo kabitzen». Emakumeak aintzat hartzen ez dituen mundua izateaz gain, pertsonentzat pentsatua ez dagoen mundua ere badela uste du Barreñak: «Guk ez dugu uste mundu honetan gizezkoak eurak ere ondo bizi direnik. Pribilegio asko dituzte eta horiek erabiltzen jarraitzen dute, egia da, baina ezin dugu ontzat hartu, adibidez, zaintza alboratzen duen mundu bat».

Funtsean, euren asmoa «bertan bizitzeak merezi duen mundua» eraikitzea da. «Lagun batek esan ohi du berak 'bizitzea merezi duen bizitza' eduki nahi duela. Eta egia da. Hori nahi dugu guk ere. Baina merezi dugun bizitza edukitzeko, pertsonak

Alor oso ezberdinak jorratzen dituzten ikastaroek osatzen dute Jabetze Eskola. Irudian, batukada tailerra. GAUR8

izan behar dira mundu honen zentroa, ez merkatuak. Eta feminismoak horren alde egiten du. Bertan bizitzeak merezi duen mundua eraiki nahi dugu, emakumeentzat eta gizonentzat, eta pentsatzen dugu mundu horretan denok izango garela askeagoak, libreagoak eta, finean, pertsonagoak».

Sentipen hori, libreagoa izatearena, presente izan ohi da Jabetze Eskoletan parte hartzen duten emakumeen artean. Jabetze prozesuak iradokitzen dienagatik galdetuta, «jendartean tokatu zaigun lekuaren jabe egitea», «lanabesak gureganatzea», «gure bizitzaren jabe egitea», «eraldaketa» edota «gure gauzez hitz egiteko aukera izatea» gisako ideiak adierazten dituzte. Baietz dio Barreñak, jabetze prozesua hasteaz batera zerbait aldatzen

dela emakumeen barnean: «Jabetze Eskolak libreago egiten gaitu eta ikastaro batera etortzen diren guztiek errepikatu egiten dute, maiztasun gehiago edo gutxiagorekin, baina berriro etortzen dira. Emakumeek libreago sentitzen direla esaten dute, seguruago sentitzen direla, zoriontsuagoak direla. Eta hori ikaragarri polita da».

#### ETENIK GABEKO PROZESUA

Jabetzea prozesu bat da. Emakume batek inguruan duenari begiratzeko era aldatzen duenean hasten den prozesua. Hor du hastapena. Baina, noiz esan dezakegu emakume bat «jabetu» egin dela? «Prozesu bat da eta bakoitzak ditu bere erritmoak... Begira, nik neuk unibertsitatean ezagutu nuen feminismoa, 17 urterekin. Orduan ez zegoen Jabetze Eskolarik. Egun 45 urte ditut eta oraindik jabetze prozesuan nagoela pentsatzen dut. Jabetze Eskola bitarteko bat da, feminismoa delako eraldatu eta pertsona askeagoak bilakatzen gaituena. Egia esan, nik uste dut prozesua amaiezina dela, baina, era berean, emaitzak laster ikusten direla; oso arin konturatzen gara gertatzen zaizkigun hainbat gauza ez zaizkigula gustatzen eta badagoela beste aukera bat. Eta hori arin ikusten da, aldaketa pertsonalak arin sumatzen ditugu, bai guk eta baita ingurukoek ere. Emakume batek esan zidan behin, Jabetze Eskolara etortzen zen bakoitzean bikoteak zera esaten ziola: 'Bazoaz berriro ere?' Ea zelan zatozen bueltan e...'. Ondo. Hori da. Lortu duzu. Lortu dugu».

**Emakume eta Gizonen** ARTEKO  
**ESKUBIDE BERDINTASUNA GURE ARDURA... eta zurea?**  
 AGURAIN  
 La igualdad entre Mujeres y Hombres es nuestra responsabilidad ¿y la tuya?





Ba al zenekien Gipuzkoako emakumezkoen batezbesteko errenta 11.857€koa dela eta gizonezkoena 23.224€koa?

[www.berdintasuna.net](http://www.berdintasuna.net)

**Ulertuko duzu zergatik pentsatzen dugun oraindik lan asko dugula egiteko.**

\* Euskal urteakari estatistikoa 2010.



## POSTMODERNO XELEBREAK

Talairistako lehiaketetako galderetan agertzen ez garenen gorabeherak

## BAT-BI-HIRU-KOLKOA-BETE-DIRU!



Ez da izango! Euskal kultura maite duzula diozu eta ez duzu euskal emakume artistarik ezagutzen? Lasal, hona hemen batzuk: Rosa Farma, June Crespo, Adeline Moya, Ana Laura Alaez, Saioa Oñio, Eva Artzakoiz, Izibene Oñederra, Elba Martínez, Elena Aitzkoa, Sandra Cuesta, Larraitz Torres, Isabel de Naveran, Ana Lezeta, Lorea Aillaro, Planeta X Cobra, Mabi Revuelta, Susana Talayero, Iratxe Larrea, Iratxe Jaio, Izaskun Alvarez Gainza, Merche Periz, Dora Salazar, Bego Vicario, Sra. Polaroiaka, Ainhoa Ortells, Elisle Ansareo, Aintzane de Luna, Alicia Vive Aquí, María Ptqk, Agnès Pe, Maite Martínez de Arenaza, Sarah Hasines, Man Pepa, Manon Cruza, Leire Urbeltz, Itxaso Diaz, Gabi Wallace, Piedad Ortiz, Carmen Ortiz, Sparganum, Abigail Lazcoz, Amalia Gracia Azqueta, Azucena Vioitas, ANT espacio, Higinia Garay, Naia del Castillo, Nadia Barkata, Mary Cuesta, Zuhar Inurrotagiena, Eneakzioa, Esther Ferrer, Estibaliz Sadaba, Ixone Sádaba, Marie Mur, Itziar Ocariz, Miren Jaio, Arrate Aitz Iborri, Begoña Inchausti, Sahatsa Jauregi, San Són, Leire Ugarte, Itziar Mardegi, Aitziber Akerreta, Carolina Lazcano, María Glück, Montxu Gal, Mainer López, A deshoras, Moniko Rios, Nerea de Diego, Xandra Villar, Xara Saatchi, Monika Lukin, Elena Odriozola, Haizea Barcerilla, Elbis River, Natalia Vegas, Alba Burgos, Laura Fdez Conde, Gentz del Valle, Rita Sixto, Sonia Rueda, Beti Silva, Laurita Siles, Laurilla Rojo, Ixi Pink Gorlas, Itxaso Diaz, Ixone Arregi, Amaia Martiartu, Miren Gonzalez,

## Gizon horiek

Antton Izagirre

l nauterietako mozorroa gainetik kendu berritan, martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Egunaren gaineko gogoetak hartu gaitu. Urtez urte, egun hori, emakumeak bizi duen diskriminazio egoera salatzekeo baliatzeaz gain, emakumeak munduan egon eta jarduteko dituen molde, eginkizun eta berezitasunez hausnartzeko baliatu izan dugu.

Esparru honetan eraikitzen ari diren diskurtso eta praktiken artean badira zenbait gogoeta gizon eta emakumeen aurkakotasunean sakontzen dutenak; beste batzuk, aldiz, osagarritasunean edota elkarreraginkortasunean oinarri-

tzen dira. Ez nuke esango ikuspegi batzuk besteak baino zuzenagoak izan daitezkeenik. Aitortzen dut feminismoari buruzko gogoetak emakumeen erabakitzeko eskubidean oinarritu behar direla; hala nola, bikote harremanak, sexu harremanak, amatasuna, abortua, haurren zaintza... Baina guztiz interesgarria deritzot gizon askoren borondatez maskulinitate berriaren hausnarketatik sortzen ari den gizon eta emakumeen jardunaren gaineko ikuspegi eraikitzaileari.

Martxoaren 8ko ospakizunen harira politikoki zuzenak diren diskurtsoak garatzen ditugu hedabide, tertulia eta eskola testuetan. Gidoiak hala eskatuta,

egun bateko gure jarduna oso koherentea izan ohi da. Ez da gutxi, baina denborak erakusten du ez dela nahikoa izan.

Gaur egun oraindik, gure eskoletan eta gaztetxoan artean oso nabarmenak dira menpekotasunean oinarritutako hitzeko eta ekintzazko portaerak. Hala erakusten dute horri buruz egin diren azterketa soziologiko eta esperientziek. Egoera hori irauli nahi badugu emakumearen eskubideen eta duintasunaren alde egiten den guztia alde batera utzi gabe, maskulinitate ereduaz hitz egin eta adostasunak bilatzeko garaia dela us-tu dugu. •

# BERDINBIDEAN

## Herri txikiei bidea egiteko laguntza eskaintzen die Gipuzkoako Aldundiak

📁 GIZARTEA / xolearamendi@gaur8.info

II. Berdintasun plana herrialde osora zabaltzeko ahaleginean hainbat egitasmo ditu martxan Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak. Horien artean dago Berdinbidean izeneko egitasmoa, 10.000 biztanletik beherako herriei zuzendua. Parekidetasunaren bidean laguntza espezifiko eskaintzen die.

Laura Gomez,  
Gipuzkoako Foru  
Aldundiko jauregian.  
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

**B**izitzaren jasangarritasunaren aldeko politikak ari da sustatzen Gipuzkoako Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritza.

Perspektiba feminista honek bizitza bera jartzen du erdigunean. «Gaur egun indarrean dagoen eredu kapitalista hetero-patriarkalak ez du bizitza lehenesten, irabazi ekonomiko en lorpenean baizik. Ez hori bakarrik, eredu sozioekonomiko hori ahalbidetzen duten baldintzak ikusezin egiten ditu: emakumeek egiten duten doako ugalketa lana batetik, eta, bestetik, lurraren baliabideen ustiaketa. Murrizketa sozialen testuinguruan, nahita ezkututzen ari dira etxeetan ari direla nozitzen batez ere murrizketa horiek. Eta etxe barruan emakumeek hartzen dute beregain gizarte zerbitzu publikoek eskaintzen ez duten zainketa lanaren ardura», adierazi du Laura Gomez Gipuzkoako Diputazioko Berdintasun zuzendariak.

Zortzi urterako iraupena duen II. Berdintasun plana onartu da legealdi honetan. Plana burutzerakoan honoko galdera jarri zuten mahai gainean: berdintasuna zertarako? «Bizitza ahalbidetzen duten zainketa lanak burutzen dituen emakumeari ez, baizik inbertsio fondoeekin espekulatzen ari den broker bati lehentasuna ematen dion eredu barneratzeke? Berdintasuna nahi dugu bizitza merezi duen bizitza bizi ahal izateko. Lehentasun bezala

bizitza eta zainketa dituen ereduaren bidean onartu genuen Berdintasun plana. Zein da bizitza merezi duen bizitza? Eta nola eraikiko ditugu hori ahalbidetuko duten baldintzak? Nola antolatuko gara kolektiboki horri erantzuteko?», bota ditu galderak bata bestearen atzetik, hausnarketaren nondik norako nagusiak agertuz.

Horren harira, gizarte mailako akordio berriak sortzeko beharra nabarmendu du Gipuzkoako Diputazioko Berdintasun zuzendariak. «Nola definitu duintasunez biziko dugun bizitza hori? Erabaki hori kolektiboki hartu behar dugu, gizartearen parte hartzea ezinbesteko pausua da beste eredu horretarantzko bidean», dio.

### EZTABAIDA GUNE KOLEKTIBOAK

Eztabaida gune kolektiboak sortu eta aniztasun ideologiko eta politikotik abiatuta jarrerak bateratuz joatea eta bidea elkarrekin egitea da gakoa Gomezen esanetan. «Kontua ez da Diputazioak bere diagnostiko propioa izatea eta hori herrialdearen osotasunarekin ez partekatzea», adierazi du.

Planteamenduak partekatzea da bidea bere esanetan. «Hori eginez goazen heinean herrialde osoaren ikuspegiaren jabe egingo gara batetik, eta, bestetik, erantzun kolektiboa emango diegu arazoei, nork bere esparrutik eta esku-menetatik», azaldu du.

Paradigma aldaketa handia eskatzen du eredu aldaketa honek. Baita erakunde publi-

koentzat ere. «Erakunde publikoak eurak ere sistema hetero-patriarkalaren barruan sortu dira eta orain arteko garapen ekonomikoaren zerbitzura jarriak izan dira. Noski, horrela gaude orain gauden egoeran...», esan du. Zentzu horretan, erakundeek beraien burua zailentzan jarri eta errealitatea beste toki batetik begiratu beharra dutela nabarmendu du.

Testuinguru honetan, Berdintasun Zuzendaritzak bi norabidetan egiten du lana. Batetik, foru erakundearen barrura begira genero politikak sail desberdinetan zeharkakotasunez txertatuz, eta, bestetik, Gipuzkoako herrialdeari begira.

Denera 54 udalekin ari dira lanean, hau da, Gipuzkoako herri guztien %61,3. Guztira Gipuzkoako biztanleriaren %75 baino gehiago suposatzen du horrek. Esparru honetara bideratzen duen diru kopuruari dagokionez, urteko aurrekontuaren %32,2 zuzentzen du ekitaldiro Berdintasun Zuzendaritzak.

### LAN ILDOAK

Diru kopuru hori hainbat lan ildotan islatzen da. Batetik, udalen egitasmoak diruz babesten ditu Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak. «Urtero egiten dugun deialdiaren bidez proiektu estrategikoentzat diru laguntzak bideratzen ditugu», azaldu du.

Hiru baldintza bete behar dituzte udalek diru laguntzak eskuratu ahal izateko: berdintasun alorrean egitasmoak onartuta izatea, teknikari espezializatuak izatea eta berdintasun programentzat aurrekontua onartuta edukitzea. Guztira 30 proiektu lagundu ditu Berdintasun Zuzendaritzak. Hamasei udalei eta mankomunitate bati eman zaizkie diru laguntzak.

Bestetik, berdintasun teknikariak kontratatzekeo laguntzak ere luzatzen dira Foru Aldunditik hitzarmen bidez. Lau kontratu egin dira momentuz, Tolosan, Ordizian, Azkoitian eta Urola Garaia mankomunitatean.

Gipuzkoako 88 herrietatik 21 udalek dituzte berdintasun arloan jarduten duten langileak.



Gipuzkoako Teknikarien Sarea osatzen dute guztiak. «Hausnarketa, eztabaida eta proposamenen eraikuntza ahalbidetzen duen espazioa da sarea», esan du Berdintasun zuzendariak.

Hiru dira udal teknikariek jorratzen dituzten alorrak: jabeakuntza bultzatzea eta emakumeen parte hartze soziopolitikoaren sustatzea, indarkeria matxistaren aurkako borroka, eta udalen barruan generoaren gaineko estrategia transbertsalak garatzea. «21 teknikariek elkarrekin lantzen dituzte programak eta ondoren udal bakoitzean txertatzen dira», kontatu du.

Aipatzekoa da Diputaziotik sustatzen den elkarlana. «Teknikariak askotan bakarrik sentitzen dira eta kosta egiten da udaleko gainontzeko kideek berdintasun alorrean egitasmoak abian jartzearen beharra ikustea. Elkarrekin lan eginez, batetik teknikarien jabeakuntza sustatzen da, eta, horrez gain, nolabaiteko legitimitatea ere lortzen da. Izan ere, udal batera proposamen jakin batekin zozazenean, beste udal batzuetan ere gauza bera egiten dutenez, ez zara aurkezpen bat bakarka egiten ari», gaineratu du.

Lan ildo hauek guztiak udal guztiei eskaintzen zaizkien aukerak dira. Hori bai, beren aldeetik nolabaiteko konpromisoa eskatzen zaie. «Udal bakoitzak ikusi behar du beretzat lehentasuna den eta horren aldeko apustua egin nahi duen. Hitzarremen hauetan parte hartzeak epe ertaineko konpromisoa eskatzen dio udal bakoitzari. Udalekin lan egin beharra dago hausnarketa erraztu eta berdintasun politiketikiko duten jarrera argi dezaten», nabarmendu du Gomezek.

#### BERDINBIDEAN

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan bada bereziki herri txikiei eskaintzen zaien zerbitzu bat ere: Berdinbidean. 10.000 biztanletik beherako herriei zuzenduta dago programa.

Herri txikiek dituzten ezaugarri propioei erantzun nahi die egitasmoak. Izan ere, Gomezek



Berdintasun zuzendaria, elkarrizketarene batean.  
Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

argi du: herri txikiek ezin dute berdintasun politikarik martxan jarri orain arteko ereduarekin.

Gipuzkoan 26 udalerrri ari dira parte hartzen, herri guztien %29,5. Gomenez esanetan, nahiz herri denak diren txikiak, batetik bestera dagoen aldea nabaria da. «1.000 biztanletik beherako herri batek ez du zerikusirik 9.000 biztanle dituen beste batekin. Aniztasuna handia da», dio. Berdintasun Zuzendaritzak errealitate anitz horri erantzun nahi dio.

Desberdintasunak desberdintasun, udal denek dute komunetan baliabide eskasia eta beste erakundeen –Emakunde eta Gipuzkoako Foru Aldundia– errekurtsio publikoetara sarbidea izateko zailtasuna. Hori ikusita, Berdinbidean aurreko legealdian jarri zen abian. Eudel Euskal Udalen Elkartek baliabide teknikoak jartzen zituen, eta, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioek, dirua. Gero Emakunde eta Genero Indarke-

*«Nola definitu duintasunez biziko dugun bizitza? Erabaki hori kolektiboki hartu behar dugu. Gizartearen parte hartzea ezinbesteko pausua da»*



riaren Biktimak Artatzeko Zuzendaritza gehitu zitzaizkien. Iaz aldaketa etorri zen. «Orain Eudel ez dago eta Diputazio bakoitzak bere gain hartu du ardurra. Emakundek 10.000 euroko laguntza ematen dio herrialde bakoitzari», argitu du.

Herrialdeen errealitatea desberdina da eta diputazio bakoitzaren esku dago horri erantzutea. Gipuzkoako Aldundiaren kasuan urtero 100.000 euro bideratzen ditu programaren garapenera. «Guretzat Berdinbidean estrategikoa da eta horregatik zuzentzen dugu urteko aurrekontu osoaren %10 egitasmorara», esan du Gomezek. Bizkaian eta Araban diru gutxiago zuzentzen dute.

Berdintasun Zuzendaritzatik denei erantzun nahi diete. «Berdintasun politiken alorrean bidea egina duten udalei laguntza eskaintzen jarraitu behar dugu, horregatik sortu dugu teknikarien sarea eta horregatik egiten dugu diru laguntzen deialdia. Eta oraindik bidea egiten hasi ez

direnei babes espezifikoa ere eskaintzen diegu. Hori da Berdinbidean», kontatu du.

Hartu eta eman. Ahalegina norabide bikoitzekoa da. «Guk laguntza eskaintzen diegu udalei, baina berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako politikak garatzeko duten ardurarekiko konpromisoa hartu behar dute eurek. Berdinbidean programan parte hartze tekniko eta politiko aktiboa izatea eskatzen diegu udalei. Batetik, pertsona bat izendatzen du udal bakoitzak eta bera joaten da egiten ditugun bileretara. Bestetik, lanean ari diren lantaldeen erantzukidetasun ekonomikoa hartzea eskatzen diegu udalei. Agian 1.000 euro dira, ez gehiago, baina konpromisoa erakusten dute modu horretan. Guk gure ardura dugu, baina udalek ere euren izan badute», azpimarratu du.

Nahiz Berdinbidean egitasmoan parte ez hartu, beharrezkoa duten aholkularitza puntua-

la ematen zaie udalei eskatzen dutenean.

Lau lan ildo ditu zehaztuta Berdinbidean programak. Bate-tik, zaintza. «Familiako gainontzeko kideekin zaintzari eskaintzen dioten denbora negoziatzen laguntzen zaie emakumeei. Izan ere, horixe kostatzen zaie gehien. Beren buruari denbora eskaintzeko eskubidea dutela gogoratu behar izaten zaie», esan du.

Jabetze eta parte hartze sozio-politikoak sustatzeko prozesuak bultzatzea da beste lan ildoa. Indarkeria matxistaren prebentzioa ere egiten dute emakume gazteekin. Prebentzio lanarekin batera, ezin ahaztu interbentzioa. Indarkeria jasaten duten emakumeen kasuan, ematen zaien atentzioa hobetzea da helburua. Azkenik, genero perspektiba udal politiketan txertatzea ere bada Berdintasun Zuzendaritzaren asmoa.

Ikasturte honetan hamar udalerritan ari dira indarkeria matxista emakume gazteekin lantzen. Hain zuzen ere, Legorreta, Itsasondo, Urnieta, Zaldibia, Getaria, Bideberri, Segura eta Irura dira herri horietako batzuk. Emakumeen jabetzaren eta parte hartze sozio-politikoak, berriz, ondorengo herrietan ari dira lantzen: Anoeta, Zizurkil, Astasu, Alegia eta Saias mankomunitateko kideak.

Berdinbidean egitasmoan parte hartzen duten udal ordezkarien artean elkarlana bultzatzen da Berdintasun Zuzendaritzatik. «Kolektiboa izateak are interesgarriagoa egiten du. Herrien arteko sinergiak aprobetxatzeko aukera eskaintzen du, bidean gertatzen diren arrakastak eta porrotak denen artean partekatuz. Zailtasunak eta indarguneak partekatzen dituzte», dio.

Proposamenak lantaldean prestatzen dira eta ondoren udal bakoitzak bere herrian jartzen ditu martxan. «Herri desberdinetako ordezkariekin osatutako lantaldeak jabetze eskola baten gisan funtzionatzen du, eta, ondoren, udal ordezkari bakoitzak bere herrian garatzen du ekimena. Desberdintasun egoe-

*«Udal teknikariak askotan bakarrik sentitzen dira eta kosta egiten da berdintasun egitasmoak abian jartzea. Elkarrekin lan eginez nolabaiteko legitimitatea lortzen da»*

*«Egitasmoak denboran zehar jasangarriak izatea da gakoa, gu hemendik lau urtera Diputazioan egoteaz harago»*

ren aurrean kontzientzia har dezaten lan egiten dugu. Horri aurre egiteko jabetze prozesua da, aldaketak negoziatzea eskatzen duena».

Era berean, dinamika honek foru jauregitik urrunen dauden herri txikien errealitatea gertuagotik ezagutzeko leihoa irekitzen die Gipuzkoako Aldundiko arduradunei. «Udalek ere, era honetan, herrialde osoaren ikuspegia dute, beren herri txikitik harago», gaineratu du Gomezek.

Begirada ez du epe motzean jartzen, urrutirago baizik. Apustua epe luzerakoa da. «Egitasmoak denboran zehar jasangarriak izatea da gakoa, gu hemendik lau urtera Diputazioan egoteaz harago».

Orain arteko esperientziak erakutsi die Gipuzkoako herri txikienetara ez zirela iristen Berdinbidean programarekin. Herri txikiek genero politikak garatzeko dituzten eragozpenak ikusita, Berdinbidean programaren barruan 1.000 biztanletik beherako herriei zuzendutako egitasmo espezifikoak dute abian: Berdintasun Txikiak. «2013an hasi ginen, Aldundiko Gazteria Sailarekin batera. Herri txikiekin egitura espezifikoak sortuta ditu Gazteria Sailak eta horiek baliatu ditugu indarkeria matxistaren prebentzioan lan egiteko. Hogezi ziren Gazteria Sailarekin lan egiten ari ziren herriak eta zortzi gehitu zaizkie. Guztira 60 neska mutilek parte hartzen dute prozesuan», azaldu du.

Foru Aldundiaren egitasmotan udal bakoitzak berak erabakitzen duen ibilbidea egiteko aukera du. «Une batean Berdinbidean programan parte har dezake eta beste une batean berdintasun teknikaria kontratatu nahi duela erabaki. Batzuetan udal txikiek ezin dute beren kabuz berdintasun politikarik garatu, baina Berdinbidean programaren babesa baliatuz edo beste udalekin elkartzuz proiektu komunak gara ditzakete», dio. «Aniztasunak, mugak eta eragozpenak kontuan hartuta herrialdearen beharrei erantzutea da kontua», amaitu du Laura Gomezek.

## Emakumeen duintasuna

**Naiara Garzia**

**D**oris Lessing idazlearen argazki bat gustuko dut,

bere etxaurreko eskaileretan eserita azaltzen den argazki hori, erosketetatik bueltan etxera itzuli eta Nobel saria jaso zuela jakin zuenean, baita Agatha Christieren beste bat, bere etxeko sukaldian azaltzen den hori, idazteko makinaren aurrean, lanean, ondoan kati-luz eta kizaraz beteriko armai-rua duela.

Bi argazki hauek maite ditut idazle hauek beste emakumeengana hurbiltzen dituztelako, Martxoaren 8an sekula manifestazio batera joan ez diren horiengana, gogor lan egin ondoren etxean atsedean hartzen daudelako. Nekatuegiak daudelako, nekatuegiak, lurrak, kristalak, atalondoak, sukaldeak... garbitzen ematen dituztelako egunak eta hori delako haien ogibidea.

Hitz hauek ikusezinak diren emakume hauei eskaini nahi dizkiet, lanarekin bukatu, etxera joan eta hankak Thrombocid pixka batekin igurzten dituztenei, eta eguna soldata barregarri batengatik garbitzen eman ondoren gerriko mina baretzeko Ibuprofenoa edo Nolotila hartzen dutenei. Frida Kahloren aurpegia inoiz ikusi ez duten emakume hauei, Virginia Woolfi bere lagun batek marraztutako aurpegi gabeko erretratua ezagutzen ez dutenei.

Alargunak, dibortziatuak... Isolatuta (bai, isolatuta) eta bakarrik dauden emakume kementsu hauei, gizartearentzat eta gertukoentzat ikusezinak direnei, ikusezinak direlako ez soilik "goikoengatik", baita ingurukoek (herritarrek) haiekiko erakusten duten jarrerarengatik ere. Beraien duintasunaren defentsan •



# SARE @ N

## EUROPA

### > Pobrezia

Pobrezia egoeran bizi diren hamar pertsonatik zazpi emakumeak dira, Ayuda en Acción erakunde espainiarrak aditzera eman duenez. Zehazki, munduan 1.300 milioi pertsona bizi dira muturreko pobrezian eta horietatik 910 emakumeak dira. Gainera, oraindik orain ez dago munduan emakumeek eta gizonek eskubide eta aukera berdinak dituzten herririk. Erakundeak ohartarazi du, halaber, pobretutako herrialdeetan bizi diren emakumeek elikagaien %70 sortzen badituzte ere, erein daitekeen luraren %2 baino ez dela euren jabetzakoa. «Txiroa izateak, emakume izateak edota gatazka bizi duen herrialdean bizitzeak hezkuntza jasotzeko aukerak murrizten ditu», nabarmendu du.

### > Lanean

Eraso sexistak ez dira etxe barrura mugatzen. Europar Batasunak indarkeria matxista ardatz hartuta egin duen ikerketak dienez erasoak «egunero edonon» gertatzen dira. Emakume europarren %45ek adierazi dute sexu erasoren bat jasan izana. Besarkadak, ukituak eta txantxa iraingarriak jasan izana aipatzen dute. Baita material pornografikoa jaso izana ere. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubi-deen Agentziari (FRA) erasoak aitortu dizkioten emakumeen herenak baino gehiagok lan giroan jasan dituzte eraso horiek, nagusien, lankideen edo bezeroen aldetik. Emakumeak zenbat eta ardura handiagoa izan lanean, eta formakuntza akademiko altuagoa, handiagoa da ere sexu erasoak jasateko duen arriskua.

### > Behartuak

Munduan 60 milioi neska ezkontzera edota bikotean bizitzera behartzen dituzte 18 urte bete baino lehen, Ayuda en Acción erakundeak kaleratutako txostenak aditzera eman duenez. Bortitzak diren zenbakiak jasotzen ditu ikerketak, besteak beste, haurdunaldian edo erditzeko momentuan sortutako arazoengatik minuturo emakume bat hiltzen dela agerian utzi baitu. Kasurik gehienetan, gainera, arazo hauek ekidin zitezkeela uste du erakundeak. Haurdunaldiak ekiditeko familia plangintzarako baliabideak ere eskasak dira Ayuda en Acción elkarteak salatu duen moduan; izan ere, munduan 350 milioi emakume ez dute zerbitzu hauetarako inolako sarbiderik.

### > Danimarka

Indarkeria matxista tamalez Europar Batasun osoan ematen den arren, ezberdintasun handiak daude herrialde batetik bestera. Danimarkako emakumeen %52k euren bikotekideen eskutik indarkeria fisiko edo sexuala jasan izana salatu dute. Atzetik doaz finlandiarrak, bertan %47k salatu baititu tratatu txarrak. Herbeheretan %45ak salatu ditu, eta, Estatu frantsesean eta Erresuma Batuan, berriz, emakumeen %44k sufritu ditu era honetako bidegabeberriak. Estatu espainolean salaketek behera egiten dute nabarmen. Bertan emakumeen %22k salatu du noizbait indarkeria matxista sufritu izana. Polonian, Austrian, Kroazian eta Txipren ere %20ko mailaren bueltan dira salaketak. Herrialde horietan indarkeria matxista tabua izan daitekeela ohartarazi du Europar Batasunak.



## KUTXATEKA.COM

### ARRANTZAN EGIN NAHI ZUEN

Haurren arrantza txapelketa Donostiako kaian, 1948. urteko goiz eder batean. Arrantzale txikiak bata bestearen segidan lurrean eserita, hankak zintzilik itsasoaren gainetik. Kanabera ilararen atzealdean mutikoak dira nagusi. Neskato bakarra ikusten da, bere arrantza ahaleginean buru-belarri. Neskato hark garbi zeukan berak ere arrantzan egin nahi zuela, eta ez arrantzan zebiltzan mutikoei begira egon. **Vicente MARTIN. FOTOCAR FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

**Iratxe Esnaola**  
Informatika ingeniaria



## Teknologien dimentsioa eta genero berdintasuna

**B**ada egun genero berdintasunean bizi garela dioten emakume heldurik (50-60 urte inguru). Egun bizi dugun egoera berdintasuntzat ulertzen dute horiek. Eta izango da aurrez zituzten zenbait muga gainditu direlako. Kasik ziur, lan munduan txertatzeko egun dugun aukera izango da baloratzen duten gauza bakarra, berdintasunean bizi garela esateko. Nahikoa zaie hori. Baina berdintasuna ez da hori bakarrik.

Ia mezu berdina adieraz dezake nerabe edo neska gaztetxo batek (15-20 urte inguru). Askok mutilek adina aukera dituztela sentituko dute. Nahi dutena ikas dezaketela. Eta lanean ez dutela mugarik izango emakumezko izateagatik. Mutilek izan ditzaizketen smartphone berberak eskura ditzaketela. Ireki dezaketela Twitter, Tuenti edota Facebook bertan kontu bat. Emakumezkoa izatea ez dela muga bat horretarako. Ezertarako. Sentituko dira libre. Eta jendarte libre batean. Benetan euren erabakien jabe balira bezala. Kontziente izan gabe ezartzen zaien rolaz. Kontziente izan gabe publizitateak eurengan duen eraginaz. Ohartu gabe teknologien munduan genero berdintasunak bizi duen paradoxaz.

Euskal Herriko testuinguru sozio-ekonomikoa abiapuntu hartuta, teknologien munduan genero berdintasuna gehien eman daitekeen dimentsioa teknologien erabilera dela pentsa genezake. Hau da, teknologiak eskura ditugula emakumeok ere, nahi eta ahal badugu, erabiltzeko. Baina dimentsio horretan beste faktore batzuk ere eragiten dute. Hau da, esaterako, emakumeak etxean betetzen duen funtzioaren arabera eta, oro har, emakumeak duen rolaren arabera, denbora gehiago edo gutxiago izango du aisialdirako. Eta aisialdi horren baitan, teknologiak erabili edo ez erabakitzeko. Hori da teknologien erabileraren paradoxa. Teknologien erabilera ere, hortaz, dimentsio teknologikotik soilik baino, perspektiba orokorrago batetik irakurtzera behar-tuta gaude. Eta beste dimentsioetan berdintasunean bizitzea

lortzen dugunean, orduan esan ahalko dugu teknologien erabileran ere berdintasunean aritzeko aukera dugula. Egia da ere teknologiek lan-munduko abanikoa zabaldu egin ditzutela emakumeoi. Baina hor kokatzen da ere emakume askoren teknologien erabilera. Hau da, behar profesionalengatik erabiltzen dituztela, euren lanarekin lotua dagoelako eta, hala ez balitz, ez lituzketela erabiliko. Eta deigarria da, oraindik ere, unibertsitateko gradu teknikoetan nesken kopurua oso murrizta izatea. Ezartzen zaigu rol bat, lotzen gaituzte zenbait bete-behar eta lanetara. Ezin da kasualitatea izan.

Teknologien erabilera emakumezko zein gizonezkoengana irekita dago, baina erabilera hori gure rol sozialaren arabera

ko izango da. Baina badira gizonezkoentzat soilik sortzen diren teknologiak ere. Adibiderik argiena bideo jokoak dira. Datuek diote neskatoek bideo jokoei denbora gutxiago eskaintzen dietela. Normala da. Bideo jokoak ez dira neskentzat sortzen: emakumeen figura oso presente dagoen baina mutilei begirakoa den produktua da bideo jokoak. Emakume otzanak, men egiten dutenak, pasiboak, eta sexualki erakargarriak. Bular handi eta gerri estuko gorputzak (bizitza errealean tente eutsiko ez lirakekeen gorputzerak, azterketen arabera). Eta rol hori jaten dute gazte-txoeak, mutilek zein neskek.

Berez, teknologiek genero berdintasunean eta hezkidetzan urratsak emateko adina potentzialtasun dute. Baina,

tamalez, iraganean utzi nahi ditugun baina egun oso bizirik dauden rolak indartzen jarraitzeko erabiltzen dira. Publizitatea bezala. Baina arazoa ez dira tresnak, bere horretan. Genero berdintasuna eremu guztiekiko zeharkakoa da eta erantzun integrala eskatzen du. Eta teknologia eremu edo dimentsio bat bezala ulertu eta landu behar da. Eta esango nuke, hein handi batean, ez zaiola dimentsio izaera hori aitortzen. Genero berdintasuna bezala, teknologia bera ere zeharkakoa baita beste eremu guztiekiko. •



Arazoa ez dira tresnak, bere horretan. THINKSTOCK

arkitektura / zientzia /  
teknologia

3 BEGIRADA:

MARTXOAK 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna

MARIJIRA

Ordua : 12:00 Lekua : Plaza Berria

berdintasan kontsilua

Hernaniko Udala

Begiratzeko modua aldatzeak  
aldatu dezake mundua

